

00.ANTOLAKETA OROKORRA

01.Euskara arloaren planak	- 5 -
02. Batzorde Aholkulariak	- 6 -
03. Euskara Arloaren Antolaketa.....	- 8 -
04. Euskara Arloaren Aurrekontua	- 9 -
05. Kalitatea hobetzeko tresnak	- 10 -

01. BARNE NORMALIZAZIOA

01. Kudeaketa-plana	12
02 Saitetako planak.....	13
03. Dekretua landu eta komunikatu.....	14
04. Hizkuntza irizpideen eskuliburua	15
05. VI. plangintzaldiaren tarteko ebaluazioa/ egoeraren diagnostikoa	16
06. Lan-mahaia	17
07. Komunikazioak sailetan.....	18
08. Lanpostuei hizkuntza eskakizuna ezarri	19
09. Langileen eskolaratzea	20
10. HE akreditazio probak	21
11. Langileen harrera	22
12. Zuzenketa-aholkularitza	23
13. Trebakuntza saioak Udaltzaingoan	24
14. Trebakuntza saioak Zinegotziak.....	25
15. Euskaraldia udaletxean	26
16. Bost minutuko ikastaroak	27
17. Kexak eta intzidentziak.....	28
18. Kontratuen jarraipena.....	29
19. Kontratu txikien jarraipena.....	31
20. Dirulaguntzen jarraipena	32
21. Ordenantzaren jarraipena	33

02. EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA

01. Zorionak diptikoa	35
02. Euskarazko produktuen katalogoa	36
03. HAZI HEZI aldizkariaren banaketa	37
04. Guraso tailerrak <i>Bularretik Mintzora</i>	38
05. Infografia <i>Familia hizkuntza Ume eleanitzak</i>	39
06. HH eta LHko ikastetxeekin Lankidetza bilerak	40
07. DBH, batxilergoa eta LHko ikastetxeekin Lankidetza bilerak	41
08. Gu ere bertsoan 2019-2020	42
09. Tramankuluak ikasgelan	43
10. Euskara Zine Aretoetara 2019-2020.....	44
11. Ongi Etorri euskarara	45
12. Lanbide Heziketako ikastetxeekin lankidetza bilerak	47
13. <i>Txikitasunean haundi</i> motibazio saioak DBH1	48
14. <i>Zergatik ez</i> Motibazio saioak Batxilergoa	49
15. Motibazio saioak Lanbide Heziketa	50
16. Barnetegia DBH 2	51
17. Arrateko egonaldia dbh 2	52
18 <i>Gurasoak ere eskolara</i> egitasmoa 2020-2021	53
19. Euskaltegien lehiaketa: txio lehiaketa.....	54
20. Multikirolak 2019 2020	55
21. Transmisio Mintegia	56
22. <i>Eibartik Zuberoara euskalkietan</i> barrena liburua	57
23. Eibarko Euskara .eus	58
24. <i>Errenta Aitorpena Euskaraz 1.500 baietz</i> kanpaina.....	59
25. UEU dirulaguntza deialdia.....	60
26. Euskara dirulaguntza izendunak	61
27. Dirulaguntza errotuloak euskaraz	63

03. AKEBAI

01. Akekideak	65
02. Akekideen Batzarra	66
03. Ekipoa.....	67
04. Topaldia: “euskaltzaleen antolakuntza ereduez berpentsatzen”	69
05. Euskal Eskaintzaren zabalkundea.....	70
06. Eibarren Aniztasuna ikasgai: 101 ele	72
07. Musikala.....	74

08. Eusliderrak	76
09. <i>Jira Bueltan</i> tailerrak	78
10. Super Akeak	79
11. Hamaika berbaldi	81
12. Euskaraldia	83
13. Tantanez tantan	85

04. UDAL EUSKALTEGIA


01. Euskaltegiko plantila	88
02. Euskaltegiaren eskaintza	89
03. Matrikula epeak eta egutegia	90
04. Tasak eta tarifa bereziak	91
05. Taldeak, orduak eta ikasle kopurua.....	92
06. Ikaslearen profila.....	93
07. HABEren aztertzaileak	94
08. Formazioa	95
09. Kanpo ekintzak.....	96
10. Liburutegi zerbitzua	98
11. Egiaztatzegintza.....	99
12. Armeria eskola	100
13. Euskaltegiaren 35. urteurrena	101
14. COVID19aren eragina uskaltegian.....	102

Antolaketa orokorra

IZENBURUA: EUSKARA ARLOAREN PLANAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloak honako plan hauek ditu indarrean:

- ESEP Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana 2018-2022
- Barne Erabilera Plana 2018-2022
- Eibarko Hiria, Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025 (AKEBAI)
- Udal Euskaltegiaren 2020-2021 ikasturteko plana



EPEA: 2020

GASTUA: Euskara Arloaren aurrekontu osoa

BALORAZIOA:

Euskararen erabilera normalizatzeko VI plangintzaldia 2018ko urriaren 29an eman du ontzat Udaltzatzak. ESEP plangintzaldi berria euskara batzordean aurkeztu eta ontzat eman da. ESEPen kasuan ez da balorazio berezirik egin, AKEBAI martxan jartzeko egin zelako.

Udal euskaltegiak ikasturtekako plana eta memoria egiten du.

IZENBURUA: BATZORDE AHOLKULARIAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloak indarrean dituen planen jarraipena bi batzorde aholkularitan egiten da:



Euskara Batzordea:

- Presidentea, PSE-EEko zinegotzia.
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Idazkaria, Euskara Arloko zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da.

ESEP eta AKEBAko gaien jarraipena egiten da. Udal Euskaltegiaren funtzionamenduaren jarraipena ere egiten da.

ENBA:

- Batzordeburua, PSE-EEko zinegotzia
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Langileen batzordearen ordezkaria
- Langileria eta Antolamendu saileko arduraduna
- Hizkuntza normalizatzailea
- Formazio teknikaria
- Idazkaria, Euskara Arloko Zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da.

Barne Erabilera planaren jarraipena egiten da.

EPEA: 2020

GASTUA: Barne baliabideak eta zinegotzien dietak

BALORAZIOA:

Euskara Batzordea:

9 batzorde egin dira, 62 gai landu dira.

ENBA

6 batzorde egin dira, 35 gai landu dira.

IZENBURUA: EUSKARA ARLOAREN ANTOLAKETA

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago: Euskara zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 12 lagun gaude.



Kargua	Oharrak
Arloko Zuzendaria eta euskara teknikaria	
Barne normalizatzailea	
Trebatzaile/ Itzultzaile	Itzulpen zerbitzurako lanean
Euskara Formakuntza	Pertsonal sailerako lanean
AKEBAI dinamizatzailea	
Euskaltegiko zuzendaria	
Idazkari Akademikoa	
Irakasleak:	
- 5, plantilakoak lanaldi osoz	
- 1, aldi baterako, egun erdiz	
Administraria	

EPEA: 2020

GASTUA: 699.170,00 €

BALORAZIOA:

Udal euskaltegirako bi irakasle kontratatu behar izan dira aldi baterako urtariletik ekainera: 1 egun osoz eta bestea egun erdiz.

IZENBURUA: EUSKARA ARLOAREN AURREKONTUA**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago:**EPEA:** 2020**GASTUA:**

	DIRU-SARRERAK	GASTUAK
EUSKARA ARLOA	348.574,47€	969.333,89€
• Euskara Zerbitzua	4.717,00 €	395.638,00€
• Euskalt egia	343.857,47 €	573.695,89 €

IZENBURUA: KALITATEA HOBETZEKO TRESNAK

DESKRIBAPENA: Euskara Arloa (Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzua) etengabe ari da kalitatea hobetzen, horretarako hainbat lan egin ditu urtean zehar:

- **Langileen etengabeko formazioa:** eguneratzeko eta udaleko gainerako zerbitzuei, herritarrei eta euskaltegiko ikasleei zerbitzu ona eman ahal izateko.




- **Lankidetzak: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundian Udalekin** egitasmoaren barruan lankidetzan jarduten da
- **Euskaltegian Curriculuma:** HABEren aginduari jarraituz Euskaltegiak curriculum berria diseinatu du eta ondoren HABEren oniritzia jaso du. Hala ere, hori hobetzen jarraituko du.
- **Zerbitzuen Karta:** Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak 2018tik zerbitzuen kartak egin dituzte. Horietan eskaintzen diren zerbitzuen berri ematen die herritarrei. Gainera, zerbitzu horiek aurrera eramateko konpromiso batzuk hartu dira kalitatea oinarri direla. Konpromiso horien betetze-maila, aldiro-aldiro neurtuko da eta neurri zuzentzaileak hartuko dira.

EPEA: 2020

Barne Normalizazioa

IZENBURUA: KUDEAKETA-PLANA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planari dagokion 2020ko kudeaketa-plana.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

6 ekintza nagusi (helburu izar) aurreikusi ziren eta horietatik 5 egin dira eta 1 bete gabe gelditu da. Ikusi [memoria](#).

IZENBURUA: SAILETAKO PLANAK

DESKRIBAPENA: Sailez sail euskara plantxoak edo mikroplanak egin eta horietan jarritako helburuak lortzeko ekintzak zehaztu.

The image shows several overlapping documents, likely educational plans or assessment tools, with tables and text in Basque. The documents are titled "SAILETAKO PLANAK" and contain various tables with columns for "Helburua", "Ekintza", and "Ebaluazioa". The tables are filled with text and numbers, representing specific goals, actions, and evaluation criteria for different subjects or levels.

EPEA: 2020


GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA::

Aurten ez da saileko planik egin. Konfinamendua izan aurretik zenbait sailekin bilerak eginda genituen, aurreko planei ebaluazioa eginda eta ekintza berriak zehazten hasita, baina dena bertan behera gelditu zitzaigun.

IZENBURUA: DEKRETUA LANDU ETA KOMUNIKATU

DESKRIBAPENA: Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 DEKRETUA aztertzea eta eragindako sailletako teknikariei komunikatzea.



EPEA: 2020


GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Dekretua landu dugu eta zalantzak argitzen jardun dugu bai udaleko idazkariarekin, bai Iñigo Urrutia legegariak Gipuzkoako euskara teknikarientzat urtarrilean egindako saio batean.

Dekretuak dakartzan berrikuntzak azaldu ditugu Euskara eta ENBA batzordeetan, Zuzendarien lan taldean, Euskararen lan mahaian eta ordezkari politikoekin eta eragindako sailletako teknikariek izandako bileretan: hirigintza, garapen ekonomikoa, informatika eta antolaketakoekin, bereziki.

Bestalde, partaide gara dekretuaren hustuketa egiteko eta hura aplikatzeko tresna bateratuak sortzeko (erregelamendua eta ordenantza) *Udalekin* Gipuzkoako udaletako euskara teknikarien lan taldean. Lanak jarraipena izango du 2021ean.

IZENBURUA: HIZKUNTZA IRIZPIDEEN ESKULIBURUA**DESKRIBAPENA:** Orain arteko eskuliburua berri 2019ko Dekretura egokitzeko**EPEA:** 2020**GASTUA:** Barne-baliabideak**BALORAZIOA:**

Hizkuntzak erabiltzeko udal irizpideak dokumentua sortu dugu dekretuko berrikuntzak sartuta. Zenbait teknikariren proposamenak jaso ditugu, idazkariak aztertu du eta ENBAn onartu da bertako kideen ekarpenak eta zuzenketak eztabaidatu eta adostu ondoren. Horrez gain, HPSko teknikari batek ere gainbegiratu du eta zenbait iradokizun egin dizkigu: aztertu eta egoki ikusi direnak ere sartu ditugu.

Erregelamendua egiteko asmoa zegoen, baina ordenantza aldatu gabe hori ezinezkoa denez, udal irizpideak izena eman zaio.

Dekretua lantzeko *Udalekineko* taldean landutakoaren arabera eta aplikatzen hasita, aldaketa edo egokitzapen gehiago sor daitezke. Horiek integratzen joango gara, bai eta langileei komunikatzen ere.

IZENBURUA: VI. PLANGINTZALDIAREN TARTEKO EBALUAZIOA/ EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

DESKRIBAPENA: Euskararen erabilera Eibarko udalean normalizatzeko VI. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioa egitea egokitu da aurten. Hainbat iturri erabili dira: udaleko langile guztiok erantzuteko galdetegia (lan-hizkuntza), ahozkoaren neurketa, HPSren galdetegia betetzeko sailetan batutako informazioa (jendaurreko ekitaldiak, ikastaroak eta laneko prestakuntza)



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Ahozkoaren neurketa

2016an egin zen bezala, azaroan ahozko erabilera informalaren neurketa egin da. Kaleko erabilera neurtzeko metodologia bera erabili da. Neurketak emaitza onak eman ditu: elkarrizketen erdia inguru euskaraz dira eta 15 puntu egin du gora 2016tik hona. Portalean erabilera handixeagoa da, eta han ere neurri berean egin du gora. Langileak tartean izan diren solasaldietan, erabilera % 50aren inguruan ibili da; zinegotziek parte hartu duten elkarrizketetan, ordea, erabilera % 25ekoa izan da eta, gainera, jaitsi egin da aurreko neurketatik.

HPSren galdetegia (Siadeco)

- 30 langilerekin harremanetan jartzeko datuak eskatu zizkiguten. Oraindik ez dugu diagnosiaren emaitzarik jaso.
- Euskara zerbitzuak ere eman behar izan du informazioa. Galdetu digute udalak antolatutako ekitaldietan egindako eskaintzan zenbatekoa izan den euskararen presentzia. Hauek dira aztertu diren arloak eta egindako azterketaren emaitza:
 - ✓ Prentsaurreko eta ekitaldi instituzionaletan euskaraz eskaintzen da informazioaren % 25 eta gaztelaniaz % 85.
 - ✓ Herritarrei zuzendutako jarduerak: euskaraz eskaintzen da informazioaren % 62. Umeentzako dena edo ia dena euskaraz egiten da; beste sail eta zerbitzu batzuetako hitzaldietan euskarazkoen eskaintza txikiagoa da. Erakusketa eta erakustazoketan informazio gehiena ele bietan dago.
 - ✓ Herritarrentzako ikastaroak: ikastaroen % 40 eskaintzen dira euskaraz.
 - ✓ Laneko prestakuntza: Euskaraz eskaintzen dira antolatutako ikastaroen % 25.

Langile guztiek bete beharreko galdetegia

113 lagunek erantzun diote galdetegiari. 2021eko lana izango da ondorioak atera eta hortik abiatuta saileko planak egitea.

IZENBURUA: LAN-MAHAIA

DESKRIBAPENA: Udal-sailetako ordezkariak osatutako mahai teknikoa da. Helburua: Euskara planaren garapenaren jarraipena egitea sailka; hartu beharreko neurriak proposatzea, lehentasunak zehaztea, eta aurrera eramango diren normalizazio-ekintzak adostea, ENBARI proposatzeko.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Hauek dira mahaiaren partaidea duten sailak: Obrak, Liburutegia, Diruzaintza, Pertsonala eta Antolamendua, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Hirigintza, Kontuhartzailatza, Kultura, Alkatetza, Zerbitzuak, Euskaltegia eta euskara, Brigada eta Musika eskola.

Lau batzar egin dira urtean zehar, eta asistentzia % 55ekoa izan da. Aurten, hauek izan dira gaiak: dekretu berria, erregelamendua edo hizkuntza irizpideen liburua, Euskaraldia eta plangintzaldiaren tarteko ebaluzioa eta erabilera neurketa.

IZENBURUA: KOMUNIKAZIOAK SAILETAN

DESKRIBAPENA: Batzarrak egin dira sailetako langileekin edo horien ordezkariekin Dekretu berriaren eta hari egokitutako udal irizpideen berri emateko.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Hizkuntzak erabiltzeko udal irizpideak ENBAn irailaren 29an ontzat eman ondoren hasi gara batzarrak egiten eta sail batzuetako langile eta teknikariei azaltzen: Antolaketa, Informatika, Garapen ekonomikoa, Kultura, Pegora, Musika Eskola, Brigada, Zerbitzuak, Zeramika eta Dibujo eskolak. 2021ean jarraituko dugu gainerakoei eta zinegotziei aurkezteko.

IZENBURUA: LANPOSTUEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EZARRI

DESKRIBAPENA: Udaleko lanpostuei, brigadakoei izan ezik, egiteko eta funtzioen araberako hizkuntza eskakizuna ezarri behar zaie. Horretarako protokolo bat dago onartua. Ikusi [HEMEN](#) protokoloa.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2020an lanpostu bati ezarri zaio HE: Errenta eta Dirubilketa teknikari lanpostuari. LANBIDERen bidez egin diren aldi baterako kontratazioetan, 7 eskaintzatan betebeharreko baldintza izan da HE, eta 14 lanpostutan (peoi lanpostuetan), baloratu egin da euskararen ezagutza.

IZENBURUA: LANGILEEN ESKOLARATZEA

DESKRIBAPENA: udaletxeko langileek eta fundazio eta patronatoetakoek euskalduntze ikastaroak IVAPen edo udalaren kontura egiteko aukera izaten dute.

Horretarako ENBAn onartutako [araudia](#) bete behar da



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA:

2019-2020 ikasturtean 14 langile eta zinegotzi bat matrikulatu dira: 5 langile IVAPen kontura, eta 10 langile Udalaren kontura.


Eibarko Udalak, San Andres Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenaren bidez, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera San Andres egoitzan pertsona adinduentzat ematen den zerbitzua Kabiaren menpe geratu da. Hori dela-eta, ikasleen jarraipena egiterakoan ez dira kontuan hartu San Andres Egoitzako langileak.

Esandakoa kontuan hartuta, 15 ikasle horietatik 9 San Andres Egoitzakoak zirenez, gainerako 6 ikasleen jarraipena egin da, eta orokorrean, langileen jarrera/aprobetxamendua ona izan da.

Ikusi [hemen](#) informazio zehaztua.

IZENBURUA: HE AKREDITAZIO PROBAK

DESKRIBAPENA: udaletxeko eta fundazio eta patronatoetako langileak IVAPek egiten dituen hizkuntza probetara joateko tramitazioa egiten da urtean bi deialditan.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2020ko lehenengo deialdia:

- Covid-19 birusa hedatzearen ondoriozko osasun-larrialdia dela eta, lehenengo deialdia indarrik gabe geratu da, eta deialdi horretarako onartuak zeuden eskabideak IVAPen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke bigarren deialdian aurkeztutako eskabide gisa hartuko dira kontuan, baldin eta eskabide horien titularrek aurkakotasunik adierazten ez badute.

Lehenengo deialdian izena emandakoak 11 dira.

2020ko bigarren deialdia:

14 eskaera bidali dira IVAPera. Horietatik 9 langile aurkeztu dira eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI:0

IZENBURUA: LANGILEEN HARRERA

DESKRIBAPENA: Langile berri bat udalerako lanean hasten denean, kontratua sinatzean Beharginendako eskuliburua (hemendik *aurrera Hizkuntzak erabiltzeko udal irizpideak* izenekoak) ematen zaio eta azaldu egiten zaio zeintzuk diren udalean lanean diharduen bitartean hizkuntzari dagokionean izan behar duen jokabidea. Horrez gain, euskararekiko sentsibilizazio saioa ematen zaio. Ikusi [HEMEN](#) eskuliburua



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Aurreko urteotan bezala, harrera egin zaie langile hasi berriei: euskara planaren berri eman, eta Beharginendako Eskuliburua edo udal irizpideak banatu eta azaldu zaizkie.

Horrez gain, sentsibilizazio saio bat antolatu da azaroaren 10ean eta 7 langile berrik hartu dute parte.

IZENBURUA: ZUZENKETA-AHOLKULARITZA

DESKRIBAPENA: Udal-sailetakoko langileei testuak euskaraz sortzen laguntzea, haiek idatzitakoak zuzentzea eta euskaraz lan egiteko lagungarriak diren baliabideen berri ematea.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Zuzenketa zerbitzua

Testuak zuzendu edo itzultzen laguntzeko egindako eskaerak 400 izan dira; 4 kanpokoak eta gainerakoak barruko langileenak.

Zuzenketa: % 88 (ia aurreko urtearen bikoitza)

Itzulpenak: % 9

Zalantzak argitzeko egindako eskaerak: % 1,7

18 sail ezberdinetako testuak gainbegiratu dira.

Aholkularitza eta euskaraz lan egiteko baliabideen gaineko informazioa

e-mail bitartez edo Intranetean jarrita eskuratu zaie langileei astelehenetako 5 minutuko ikastaroetan: hizkuntzaren gaineko zalantzak, ohiko akatsak, ariketa errazak, Interneten aurki daitezkeenak, euskarazko ekitaldien agenda...

Horiez gain, euskaltegian antolatzen diren ikastaro eta bestelako ekitaldien gaineko informazioa eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko deialdien ingurukoak ere jakinarazi zaizkie langileei.

IZENBURUA: TREBAKUNTZA SAIOAK UDALTZAINGOAN

DESKRIBAPENA: Udaltzaingoarentzako planaren barruan kokatu dira udaltzaintzako trebakuntza saio hauek.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Leihatilan egoten diren txanda arduradunentzako saioak egin dira 2020an eta jarraipena eman zaio 2019ko ekainean hasitakoari. Honako hauek landu dira: mintzamena (jendaurrean eman beharreko azalpenak, lanari lotutako azalpenak, herritarrei azalpenak eta argibideak ematea), lanari lotutako hiztegia, brifinetan eman beharreko azalpenak, eta parteak eta intzidentzia liburua euskaraz idazten hastea.

Euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzeaz gain, saio hauekin lan-hizkuntza gisa euskararen erabilera areagotzea bilatu nahi izan da.

Talde batean 4 arduradun ibili dira. Ordu beteko 10 saio (astean behin) hartu dituzte urtarriletik martxora. Urrian ekin zaio berriro eta beste 11 saio hartu dituzte. Asistentzia % 80koa izan da. Egun askotan lan orduetatik kanpo etorri dira.

Maila baxuagoko beste talde bat ere aritzekoa zen, baina zaila izan da eguna eta ordua adostea. Azkenean, eta herritar baten kexa bat tarteko, horietako batek 12 saio hartu ditu otsailetik martxora. Helburua izan da arreta euskaraz egin ahal izateko gutxienekoak ikasi eta praktikatzea.

Saioak euskara normalizatzaileak eman ditu.

IZENBURUA: TREBAKUNTZA SAIOAK ZINEGOTZIAK

DESKRIBAPENA: zinegotziei euskara gaitasun maila hobetzeko saioak dira hauek.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Hiru zinegotzik hartu dituzte trebakuntza saioak.

Bakoitzaren gaitasunaren eta egitekoen arabera ezberdinak izan dira helburuak:

- jarduera publikoan agerraldiak prestatzea
- idatzitakoaren ulermena lantzea
- jarioa hartzea
- eibarrera lantzea
- gutxieneko ulermena eskuratzeko bidea egitea

Dedikazioa ere ezberdina izan da. Bat lehen seihilekoan aritu da, beste bat urte osoan eta azkenak udazkenean ekin dio. Astean ordubete-bi ordu hartu dituzte.

IZENBURUA: EUSKARALDIA UDALETXEAN

DESKRIBAPENA: Euskaraldia *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* leloarekin izan da aurtten.



EPEA: 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra ko abenduaren 3a

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Eibarko Udalak bat egin du Euskaraldiarekin eta izena eman du entitate moduan parte hartzeko. 21 arigune identifikatu dira (batzordeak, sailak eta lan taldeak) eta 170 lagun inguruk eman dute izena.

Erabilera sustatzeko eta hartutako konpromisoari eusten laguntzeko Euskaraldiak iraun bitartean egunean mezu bat jaso dute langileek eta, horrez gain, lehiaketa egin da (sailak eta zerbitzuak hobeto ezagutzeko galderei erantzun behar izan diete parte hartzaileek).

IZENBURUA: BOST MINUTUKO IKASTAROAK

DESKRIBAPENA: Astero e-mailez hizkuntzaren gaineko azalpen motzak bidaliko zaizkie langileei: maiz egiten diren akatsen gaineko oharrak, hiztegia, Interneten dauden baliabideak...

5 minutuko ikastaroak
5 minutuko ikastaroak
5 minutuko ikastaroak

EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Urteko 27 astelehenetan iritsi zaizkie langileei euskararen inguruko mezuak posta elektronikoz edo intranetean jarrita.

Azalpen asko gaizki erabiltzen ditugun edo arazotsuak izaten diren euskarazko egituren ingurukoak izan dira. Beste batzuek lexiko kontuak azaldu dituzte, ortografia eta puntuazio egokiari buruzko argibideak eta testu mota jakin batzuk egoki sortzeko aholkuak. Zenbaitetan ariketak egitea ere proposatu zaie, eta kontsultak egiteko Interneten eskuragarri dauden baliabideak ere aurkeztu zaizkie.

IZENBURUA: KEXAK ETA INTZIDENTZIAK

DESKRIBAPENA: Herritarrek eta udalaren zerbitzuen hartzaileek egindako kexa eta gertatutako intzidentziei jarraipena egiten diegu.



EPEA: 2020

GASTUA: barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Herritarren hizkuntza eskubideak urratzeagatik jarri dira kexa guztiak.

Errotulazioa: Obretako oharrak eta seinalizazioak erdera hutsean edota euskaraz baina akatsez beteta jarrita zeuden. Ez dira bete kontratuko baldintza orrietan jarritako hizkuntza betekizunak. Obra egiten ari den enpresarekin hitz eginda konpondu da.

Herritarrari zerbitzua ematea:

Udaltzaingora deitutako pertsona batek erderaz egin behar izan du langileak ez zekielako euskaraz. Ez da bete zerbitzua herritarrek nahi duen hizkuntzan jasotzeko eskubidea. Saioak eman zaizkio gutxieneko batzuk ikasi eta entrenatzeko.

Coliseoan izandako kultura ekitaldi batean hasiera eta amaierako oharrak gaztelaniaz bakarrik eman dira. Kulturako zuzendariari txostena bidali zaio. Hasierako eta amaierako oharrak ele bietan, euskarazkoari lehentasuna emanda, eman beharraz ohartarazi dira bertako langileak.

Kiroldegiko umeentzako dantza jarduerak gaztelaniaz bakarrik eskaini dira. Zerbitzu hori emateko kontratuan ez dira jaso hizkuntza baldintzak. Zerbitzuaren lizitazioa egiteko kontratu berria ateratzean zein hizkuntza irizpide jarri behar diren komunikatu zaio kontratuaren arduradunari.

Kiroldegiak etxean ariketa fisikoa egiteko web orrian jarri dituen bideo gehienak eta herrian egiteko diseinatu diren ibilbideak erderaz bakarrik daude. Ez da behar bezala konpondu. Bideo batzuei oharrak euskaraz jarri zaizkie, beste batzuk ahozko argibiderik gabe egin dira, baina asko erderaz bakarrik daude oraindik ere ikusgai.

Kiroldegiak bere instalazioak erabili ahal izateko erreserbak egiteko eta txanda hartzeko sortu duen aplikazioa ia guztia erderaz bakarrik dago. Kiroldegiko arduraduna ohartarazi da, eta laguntza eskaini zaio euskaraz jartzeko. Ez da konpondu.

Gizartekintzako Gurasoak Martxan programako hitzaldi guztiak erderaz antolatu dira. Arduraduna ohartarazi da eta hitzaldietako bat euskaraz ematea erabaki da. Hala ere, ez da egin, antolatzeko jarritako baldintza (gutxieneko izen-ematea) ez delako bete. Hitzaldiak antolatzeko baldintzak zehaztu dira eta Gizartekintza Batzordera proposamena bidali da: Hartzaileen adin-tartea kontuan hartuta euskarazko hitzaldiak gutxienez erdia izatea eta entzule kopuruaren kasuan ere euskarazko saioetarako parte-hartzaile kopurua txikiago izatea.

Langileei zerbitzua ematea:

Udaletxe barruan arrisku psikosozialen inkesta betetzeko ekarritako teknikoak bi saiotan gaztelaniaz egiteari ekin dio batzuek ez zekitelako esanez. Espedientearen jabea ohartarazi da kontratuetako baldintza orrietan jartzen dena zaindu eta betearaztearen inguruan.

IZENBURUA: KONTRATUEN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Udalak egiten dituen kontratuetan jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da, kontratuaren arduradunari galdetuta jarritako irizpideen betetze-mailaren inguruan.



EPEA: 2020

GASTUA: barne-baliabideak

BALORAZIOA:

55 kontratu formalizatu dira aurten:

- Zerbitzu kontratuak 31 (horietako 12 Kontratuzairen)
- Obra kontratuak: 7
- Hornidura kontratuak: 15
- Emakidak edo beste batzuk: 2 (beste bi hutsik edo desestimatuta gelditu dira)

Kontratu gehienen baldintza orriak ele bietan argitaratu dira, baina batzuk gaztelaniaz bakarrik daude: 5 zerbitzu kontraturen pleguak eta hornidura kontratu batena.

Batzuk negoziatuak publizitaterik gabe dira edo esparru akordiotik eratorriak. Horietan hizkuntza baldintzarik ez. Gainerakoetan jartzen dira. Kontratu batzuetako baldintza pleguetan hizkuntza irizpide egokirik ez direla jarri ikusi da eta kontratuaren arduradunak ohartarazi dira.

Kontratuzairen aplikazioan zerbitzua ematean herritarrekin harremana izatea eskatzen zuten kontratuak baino ez dira sartu; guztiak zerbitzu kontratuak dira. Jarraitu diren kontratuetako batzuk aurreko urtean formalizatutakoak dira.

14 kontraturen neurketa egin da.

Erabilera irizpideen betetze-mailaren batezbestekoa %90 ingurukoa da. Batezbesteko maila 2,87 eta 4,50 bitartean dago (1etik 5erako eskalan, 1 dena gaztelaniaz eta 5 dena euskaraz da). Hau da, kontratu batzuetan dena euskaraz eta gaztelaniaz egiten da maila berean, eta beste batzuetan pixka bat gehiago euskaraz.

39 lanposturi egin zaie jarraipena eta bat izan ezik guztiek bete dute eskatutako maila.

Arloaren arabera, gurean (2020)

Hemen erakusten den emaitza 2020-an burututako neurraldiei dagokie.

Arloa	Urtean neurtutako kontratuak	Betetze maila	Batez beste	Lanp. betetzeko	Lanp. beteta	Lanpostuak
1. UDAL BARRURAKO ZERBITZUAK: AHOLKULARITZAK, OSASUN ZERBITZUAK, AUDITORIARIK, EUSKARAREN NORMALKUNTZA...	2	%63.33	3.33	-	-	-
2. HIRIGINTZA, OBRAK, UR ETA AARGI HORNIDURA, INGURUMENA	1	%100.00	3.33	-	-	-
3. SEGURTASUNA, BABES ZIBILA, TRAFIKOA, GARRAIO PUBLIKOA... UDALTAINGOIA	-	-	-	-	-	-
4. SOZIO-EKONOMIA, ENPLEGUA, MERKATARITZA, NEKAZARITZA, AZOKA	4	%69.72	2.87	5	5	%100.00
5. GIZARTE ZERBITZUAK, GENERO BERDINTASUNA, OSASUNA, ETXEBIZITZA...	1	%100.00	3.00	3	2	%66.67
6. KULTURA, HEZKUNTZA, LIBURUTEGIA, ONDAREA, ARTXIBO HISTORIKOA, TURISMOA...	3	%90.91	3.69	7	7	%100.00
6.1. Turismoa	-	-	-	-	-	-
7. AISIA ETA KIROLA	2	%100.00	4.33	22	22	%100.00
7.1. Aisia	1	%100.00	4.50	2	2	%100.00
7.2. Kirola	-	-	-	-	-	-

udal>ekin
EUSKARA TEKNIKARIEKIN ELKARLANEAN

Gipuzkoa
BERRIA

KAM Telekomunikazio Aholkularitza
Guk asmatuko dugu nolai

Idatzi hemen bilatzeko

13:03
2021/1/18

Obra kontratuei ez zaie jarraipenik egin, baina bi kexa jaso ditugu obra batzuetako errotulazioari buruz eta Obra saileko teknikariek konpondu dute.

Egindako kontratuen erregistroa [hemen](#).

IZENBURUA: KONTRATU TXIKIEN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Udalak egiten dituen kontratu txikietan jartzen diren hizkuntza-irizpideak zaintzea.



EPEA: 2020

GASTUA: barne-baliabideak

BALORAZIOA:

Kontratu txikietan zer-nolako hizkuntza baldintzak jartzen diren begiratu da, eta ondorioztatu da askotan ez direla jartzen kontratatu nahi den zerbitzuarekin bat datozen baldintzak. Gainera, zenbat kasutan falta da jasotzea jarduera (hitzaldia, ikastaroa denean) zein hizkuntzatan izan behar den eta baita zer hizkuntzatan izan behar diren udalarekin harremanak eta aurkeztu beharreko dokumentazioak eta fakturak.

2021ean kontratu txikien prozedura aztertuko da eta orduan proposatuko dira hizkuntza atalari dagozkion hobekuntzak.

IZENBURUA: DIRULAGUNTZEN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Udalak ematen dituen dirulaguntzetan hizkuntza-irizpideak jartzen diren jarraitzen dugu.



DIRULAGUNTZAK

EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

75 dirulaguntzen jarraipena egin dugu: izendunak 46, 19 ebaluazio bakoiztu bidez, 4 zuzenean ematekoak eta 6 norgehiagoka araubidez.

Guztiak ele bietan argitaratu dira, 3 izan ezik. COVIDen eraginez kaltetutako merkataritzari laguntzeko zuzenean emateko dirulaguntzak izan dira gaztelaniaz bakarrik argitaratu direnak.

Hizkuntza-baldintzak jarri dira zuzenean emateko guztietan, izendunen % 95,6an, eta norgehiagoka araubidez emandakoen % 66an. Ebaluazio bakoiztu bidez kirol elkarteei ohiko jardueran antolatzeko laguntzetan jarri dira; gainerakoen ez. Bestalde, Eibarko establezimenduetako errotuluak eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko laguntza ere eman da.

Izendunetako jarduketa txostenean aurten atal bat sartu dugu dirulaguntza jasotzen duen elkarteak hizkuntza betekizunak zenbateraino bete dituen adieraz dezan.

IZENBURUA: ORDENANTZAREN JARRAIPENA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Euskararen Ordenantza du indarrean 2016ko ekainetik. Ordenantza horren betetze-mailaren jarraipena egiten da ENBA eta Euskara Batzordean. ENBA n udal barruko eta erakunde autonomoei dagokiena eta Euskara Batzordean udalerriko neurriei dagokiena.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne-baliabideak

BALORAZIOA:

2021 hasieran egin zaie jarraipena Euskararen Ordenantzaren zenbait adierazleri.

Egindako jarraipena kontsultatzeko [hemen](#)

Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana

IZENBURUA: ZORIONAK DIPTIKOA

DESKRIBAPENA: Eibarren umeak erregistratzen dituzten familiei Pegoran “Zorionak” diptikoa banatzen zaie. Bertan eredu linguistiko desberdineko gurasoei aholkuak ematen zaizkie umeekin eduki behar duten jarrerari buruzkoak.



EPEA: 2020 urtea

GASTUA: 2016ko aurrekontukoa 907,50€ (3.000 ale)

BALORAZIOA:

2020 urtean 215 ume jaio dira.

IZENBURUA: EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Eibarko ikastetxeetan San Andres inguruan Euskarazko produktu katalogoa banatzen du. Katalogo hau Euskal Herri osorako egiten da eta Eibarko udalak ale batzuk erosten ditu.

**EUSKARAZko
produktuen katalogoa**
kalean da!

Zorionez, gero eta produktu gehiago egiten dira euskaraz, eta horien aukeraketa bat da katalogo honetan bildu duguna, erosketak egiterakoan lagungarri izango zaizuna.

Produktu gehiagoren berri izan nahi baduzu, edo Informazio zehatzagoa behar baduzu...

WWW.KATALOGOA.EUS

0-12 urte
Katalogoa
EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA 2020-2021

EPEA: 2020ko azaroa


GASTUA: 2.650,00 €

BALORAZIOA: 2.800 katalogo banatu dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 1.700 liburu bereizgarri DBHko ikastetxeen bitartez.

IZENBURUA: HAZI HEZI ALDIZKARIAREN BANAKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak 2 urteko umeen geletako gurasoei Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza oparitan jasotzeko aukera ematen die. Interesatuak izena eman behar dute.

Horretaz gain ume jaioberria erregistratzera doazen familiek Hazi Hezi 0 alea doan jasotzen dute.



EPEA: 2020 urtea

GASTUA: 705€ harpidetza eta Pegoran 0 alea banatzea doan izan da.

BALORAZIOA: 52 gurasok eman dute izena urtebeterako harpidetza doan jasotzeko. Iaz baino guraso gehiagok:


- 5 Aldatzekoak
- 11 San Andresekoak
- 10 La Sallekoak
- 20 Mogeleskoak
- 2 Arrateko Andra Mari
- 4 Amaña

eta Pegoran 215 familiari banatu zaie 0 alea

IZENBURUA: GURASO TAILERRAK BULARRETIK MINTZORA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta familiekin lankidetzan Galtzagorri elkartearen *BULARRETIK MINTZORA* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo horretan Euskara arloa, udal liburutegia, ikastetxeak eta familiak dira partaide. Egitasmoaren barruan gurasoei zuzendutako tailerrak eta hitzaldiak eskaini dira, euskaraz eta gaztelaniaz.

Helburua haur literaturaren garrantziaz jabetzea eta irakurketa ohiturak etxean sustatzeko familientzako formazioa ematea da.



GURASOENTZAKO TAILERRA **Haurrak, poesia** **eta eskola**

Ikastaro praktikoa, doan

Haur poesia ezagutzeko modurik eraginkorrena frogatuko dugu: sortu, antzetzu, kontatu, esan.

Erabat praktikoa izango da

Bularretik Mintzora irakurtzeko zaletasuna sustatzen duen egitasmoaren barruan eskaintzen da.



**Ikastaro praktikoa
doan**

**Otsailak 11 eta
18, asteartek**

18:00-20:00

**PORTALEko lehen
solairuko
batzartokia**

EMAN IZENA
euskara@eibar.eus

Udal liburutegiko
mostradorean

Telefonoz: 943708426

Azken eguna otsailaren 5a

DATAK:

Otsailak 11 eta 18, 18:00-20:00 PORTALEko 1 batzartokian

Haurrak poesia eta eskola: Yolanda Arrieta

GASTUA: 0€

BALORAZIOA: Ez da talderik osatu eta bertan behera utzi dugu.

IZENBURUA: INFOGRAFIA FAMILIA HIZKUNTZA UME ELEANITZAK


DESKRIBAPENA: *Ume eleanitzen gurasoentzako eskuliburua* infografia bilakatua.

Paperean dagoen informazio garrantzitsua infografia bidez (animazio bideoa) ematea da helburua.

Infografia hori ikastetxeek gurasoekin egiten dituzten bilera orokorretan erabili ahal izango dute, udalaren web gunean eta ikastetxeen web eta blogetan egon daiteke ikusgai.

Watsap bidez banatzeko bertsio arin bat izatea komeniko litzaiguke.

<https://www.eibar.eus/eu/bideoak/euskaratik-eleaniztasunera-infografia>



EPEAK: 2020 IRAILA-URRIA

GASTUA: 7.151,71€ 2019an egindakoa

BALORAZIOA: Ikastetxeek gustura hartu dute multimedia materiala. Bideo honen bidez gurasoek 5'an funtsezkoa den informazioa jaso ahal dute. Liburuxkaren formatoak lan handiagoa eskatzen zien irakasleei eta baita familiei ere.

Watsap bidez erraz banatzeko bertsioa ere egin eta zabaldu da.

IZENBURUA: HH eta LHko IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta HH eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 7 ikastetxe daude eta denak dira mahaiko kide.



DATAK:

2020/01/21
2020/09/04

ASISTENTZIA

6 ikastetxe
7 ikastetxe

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Ohikoa baino bilera bat gutxiago egin da COVIDarengatik. Asistentzia % 93koa izan da.

IZENBURUA: DBH, Batxilergoa eta LHko IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta DBH, Batxilergoa eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 3 ikastetxe daude, eta denak dira mahaiko kide. Ikastetxe publiko bakarra dago 3 egoitzatan banatua, eta 2 kontzertatu.



DATAK:
2020/01/15
2020/09/02

ASISTENTZIA
2 ikastetxe
3 ikastetxe

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Itxialdiagatik ekaineko bilera ez da egin. Asistentzia oso ona izan da.

IZENBURUA: GU ERE BERTSOTAN 2019-2020

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoa. Udalak eta ikastetxeek finantzatua. Ikastetxe gehienetan LH5 eta 6 mailatan burutzen da. Egitasmoak ikasturte osoa hartzen du, urrian hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Bertsozale lantzeko saioa astero izaten dute eskola orduetan, aste batean bertsozale elkarteko irakaslea joaten da gelara eta hurrengo astean tutorearekin lantzen dute.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 11.720€

BALORAZIOA:

Eibarko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek hartu dute parte. Egitasmoa 18 ikastaldetan burutu da. 360 ume inguruk landu dute bertsolaritza. Umeek bertsolaritzaren bitartez umore eta jolas giroan bertsoaren bitartez euskara eta ahozkotasuna lantzen dute. Bertsozale elkarteko irakasleak oso profesionalak dira eta umeekin duten harremana oso egokia da. Covida dela eta itxialdian egon diren denboran egitasmoa eten egin da, eta horregatik ez da egon Umeen bertso jaialdirik Coliseoan. Ikusi [MEMORIA](#)

IZENBURUA: TRAMANKULUAK IKASGELAN

DESKRIBAPENA: Jose Ramon Soroizek eskaintzen duen emanaldia da. Eibarko Udalak LH 5eko ikasleentzako motibazio-saioak antolatzen ditu. Eskola orduetan izaten da. 5 saio egin dira, lau Portalean eta bestea Iturburun. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskaraz gozatzea eta idazteko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea.



EPEA:

Otsailak 11

10:00 Arrateko Andra Mari

11:15 Aldatze

Otsailak 12

10:00 Urkizu

11:15 San Andres

Otsailak 13:

10:00 La Salle

11:15 Amaña

Otsailak 14:

11:00 Iturburu

GASTUA: 2.420 €

BALORAZIOA: Portalean egin den emanaldi bakoitzean 50 ume inguru egon dira eta Iturburun 75. Beraz guztira 275 umek hartu dute parte emanaldian eta oso arrakastatsua izan da aurten ere.

IZENBURUA: EUSKARA ZINE ARETOETARA 2019-2020

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeei euskarazko zine eskaintza egiten die eskola orduetan. Eskaintza hori TINKO euskara elkartearen bitartez. Udala eta ikastetxeen artean finantzatzen da. Filmak Coliseoan edo Portalean ematen dira 14:45-16:30 bitartean.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 2.139,50 €

BALORAZIOA: TINKOk 8 filma eman ditu. Filme guztiak Coliseoan eman dira soinua hobea delako, eta ikastetxeek eta TINKOk ere horrela eskatu duelako. 2.006 ikusle izan dira. Martxotik aurrerako filmak etxetik ikusteko aukera eman zaie.

Ikastetxeka honako hau izan da filmen eskaera:

IKASTETXEAK LH:

- San Andres 4 filma
- Aldatze 3 filma
- Amaña 2 filma
- Urkizu 3 filma
- La Salle Isasi 3 filma
- Arrateko Andra Mari filma 1

IKASTETXEAK DBH

- IEibar BHI 2 filma
- La Salle Azitain filma 1

IZENBURUA: ONGI ETORRI EUSKARARA

DESKRIBAPENA: Eibarrera bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskarazko errefortzu saioak ematen zaizkie. Udalak finantzatzen du. Ordu eta laurdeneko bi saio izaten dira astean, Indianokua gaztelekuan. Ikasturte honetan ere ikastetxean bertan taldeak osatzea bultzatu da. Eibar BHIIn hauspoa egitasmoaren barruan eskini da.

Eibar BHI Isasiko 1go taldea : Astelehen-asteazken 2. taldea:Astearte-osteguna. Indianokua Gaztelekuan bi taldek astelehen-asteazken

2020ko urriaren 21ean hasi dira eta martxoaren erdira arte luzatu da. Itxialdian bertan behera geratu zen egitasmoa.

Guztira 50 ikaslek eman dute izena eta 4 taldetan antolatuta jardun dute.

3 talde Eibar BHI Isasi ikastetxean eta talde 1 Gaztelekuan (Aldatzeko ikasleak).

Ordutegia:

2019/2020 ikasturtea:

Ordutegia:

Eibar BHI Isasi :15:15etik 16:15era.

Indianokua Gaztelekuan: 16:30-17:42 eta 17:30-18:45



EPEA:2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 7.200 €

BALORAZIOA:

2019/2020 ikasturtean ere 4 talde jarri dira martxan banaketa berarekin.
Guztira 50 ikasle inguru dabilta.

Talde bat hasiera mailakoa, beste bat erdi mailakoa eta bestea aurreratua.
Gaztelekuko taldean hasiera mailakoak eta erdi mailakoak nahastuta daude.

Balorazioa orohar ona da, nahiz eta asistentziarekin gorabehera dextente izan.
2020ko martxoan etxeratze aginduaren ondorioz jarduera bertan behera geratu da.

IZENBURUA: LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udala Lanbide Heziketako ikastetxeekin (Armeria Eskola eta UNI) eta ...eta kitto! Euskara elkartearekin lankide delarik bilerak egiten dira elkarrekin Lanbide heziketan euskararen erabilera sustatzeko.



DATAK:

2020-02-18

2020-09-03


ASISTENTZIA Denok

GASTUA: Baliabide propioak

BALORAZIOA: Baliagarria izan da Lanbide Heziketako zentrokekin bilera bereiztuak egitea. Euren asistentzia eta inplikazioa oso ona izan da. Aukera izan dugu zentro horietarako ekintza espezifikoak diseinatzeko.

IZENBURUA: TXIKITASUNEAN HAUNDI MOTIBAZIO SAIOAK DBH1

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBH 1eko Ikastalde guztiei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du, eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da. Tailerra ordu eta erdiko bi saioak osatzen dute.



EPEA:

Urritik abendura bitartean egin dira saioak.

GASTUA: 2.246,50 €

BALORAZIOA:

325 ikaslek jaso dituzte motibazio saio hauek. Eibarko DBH1 maila duten ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte. Guztira 13 taldetan eman dira saioak. Orohar ikasleek saioari buruz egin duten balorazioa ona da. Balorazio guztiak taldeka [HEMEN](#) daude.

IZENBURUA: ZERGATIK EZ MOTIBAZIO SAIOAK BATXILERGOA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Batxi 1eko ikasleei motibazio saioak eskaintzen dizkie. 2020an lehen aldiz eskola orduetan egin da. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzea eta partaideen hizkuntzaren aldeko jarrera indartzea. Saio hauek Elgoibarko Izarra euskara elkartekoek ematen dituzte. Aldatze eta Eibar BHI ikastetxeetan emango dira saioak DBH4 mailan



EPEA: 2020ko martxoaren 12an

GASTUA: 453,75 €

BALORAZIOA: Aldatzeko ikasleek hartu dute parte. Guztira 38 ikaslek hartu dute parte; 20 neska eta 18 mutil. Jarrera ona izan dute eta parte hartu dute eta saioen helburua bete dela esan daiteke. Gaztetxoek saioei buruz egindako balorazioa 4.34koa izan da 5etik; iaz baino hobea . eibar BHIIn ere programatuta zegoen emanaldia, baina bertan behera geratu zen COVIDarengatik .
BALORAZIO OSOA.

IZENBURUA: MOTIBAZIO SAIOAK LANBIDE HEZIKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Lanbide Heziketako A ereduko ikastaldeei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du. Helburua da euskara ikastera animatzea.

Hitzaldi soziolinguistikoa
Txikitetasunean HAUNDI?

...eta kitto! Euskara Elkarteak ERABIERA sustatzeko asmoz bi motibazio/sensibilizazio hitzaldi eskaintzen dituzte. Euskara XXI. Mendean bizirik irautea lortu du, gure esku dago XXI. Mendean arte ere bizirik heldzea. Zer egin ordea hortaz ohartzeko eta erabilerari sustatzeko? XXI. Mendean gure esku hitzaldiaekin horixe da hain zuzen ere bitartean duguna, gaztekoak edota helduak sensibilizatu eta jarrera aktiboak sortzea. Bi formateo eskaintzen ditugu, bata hitzaldi formateoan eta bestea tailer formateoan.

Euskaldun izan edo ez izan, helduak euskararekiko erakusten dugun jarrera eragin zuzena dugu: gure seme/alaba, ikasle eta erakonean umeen jokabidean. Jarrerak aldatzea posible al da? Jarrerak aldatuz gero gure jokabidea aldatuko genuke?

Umeak dituztenentzat edota umeekin lan egiten dutenentzat pertsona dago "Euskararekiko JARRERAK eta MOTIBAZIOAK" hitzaldia eta euskaraz zein gaztearek eskaintzen dugu.

Haremanetarako: Ainara tabada Alamo (943 20 09 18 / narratzaizua@etakitto.com)

etakitto!

Euskararekiko JARRERA eta MOTIBAZIOAK

XXII. mendea GURE ESKU

- Zenbat hizkuntza daude munduan?
- Zergatik desagertzen dira hizkuntzak?

Hitzaldia
12 urteko ikasleentzat
Irailaren 25. 15 minutu
30 lagun gehienez parte

Tailerra
16 urteko ikasleentzat
Irailaren 25. 25 lagun gehienez parte

Jarrerak erantzun ikasle dute.

Posible al da jarrerak aldatzea?

Hitzaldia
Datuak emateko, ikasleentzat edota ume-ikasleentzat
Irailaren 25. 15 minutu
30 lagun gehienez parte

EPEA: 2020ko iraila-urria

GASTUA: 2.974,00 €

BALORAZIOA: Lanbide Heziketako Armeria Eskolako 9 taldek eta UNiKo 8 taldek jaso dute, lehen mailan A ereduan dauden talde guztiak dira. Balorazioa orohar ona izan da. Eta interesa adierazi duten ikasleek euskaltegiara jo dute euskara ikastera.

Armeria Eskolan bigarren ikasturtez lortu da ikastetxearen eskola orduen barruan ere proiektuetan integratuak euskara modu berezian lantzea 2 taldetan, eta ikasturte honetan Eibarko Udal euskaltegiko irakasle batek eta AEK-ko batek dihardute lan horretan

IZENBURUA: BARNETEGIA DBH 2

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBHko Eibar BHI ikastetxearekin lankidetzan bertako DBH2ko ikasleentzako hizkuntza barnetegia antolatu du. Eskola mapa berriaren arabera antolatu dira ikastetxe publikoak, eta horrek eragindako egoera berrietara hobeto egokitzeko helburua du barnetegiak (talde izaera, zentro desberdinetatik etorritako ikasleen arteko bizikidetzak aberatsagoa izatea. Baina bereziki helburua hizkuntza ohituretan eragitea da, jabeak eta ahalduzko-prozesu baten bidez.



EPEA: 2020ko urtarrilean

GASTUA: 17.510€

BALORAZIOA: DBH2ko 4 talde egon dira eta ikastetxeak eta barnetegiko begiraleek egindako balorazioa ona izan da. Eta iazkoarekin alderatuta, euskararen erabilerari dagokionean, igo egin da; 4 puntuko emaitza (ONA) jarri zaie 5etik.

IZENBURUA: ARRATEKO EGONALDIA DBH 2

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak DBHko Eibar BHI ikastetxearekin lankidetzan bertako DBH2ko ikasleentzako egonaldia antolatu du Arraten. Eskola mapa berriaren arabera antolatu dira ikastetxe publikoak, eta horrek eragindako egoera berrietara hobeto egokitzeko helburua ere badu egonaldiak (talde izaera, zentro desberdinetatik etorritako ikasleen arteko bizikidetzaren aberatsagoa izatea). Baina batez ere, ikastetxetik kanpo, inguru naturalean, jolas eta talde jardueren bitartez euskaraz gozatzeko aukera eskaintzea da helburua.



EPEA: 2020ko udazkenean (urria-azaroa)

GASTUA: 9.190 €

BALORAZIOA: DBH2ko 10 talde egon dira Arraten (urriaren 23tik azaroaren 5era bitartean), egunean gela bat, 2 irakaslerekin eta Astixako 2 begiralerekin. Astixak dinamizatu eta koordinatu ditu eguneko jarduerak 08:30etik 17:00etara bitartean. Jardueren artean: Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa bisitatu; inguruko baserrien izenak, toponimoak, zuhaitzen izenak... ikasi; euskararekiko sentsibilizazio eta motibazioa lantzeko bertso tailerra, inguruko bertsolari gazteek emana; talde dinamikak...

Ahal izan den guztietan oinez igo dira taldeak Arratera, eta oinez jaitsi; eguraldiagatik ezinezkoa izan denetan, autobusa izan dute. Jarduerak ere kanpoan egin dira gehienetan, baina ezin izan denean, Arrateko aterpetxea erabili da.

Astixako begiraleak eta bertsolariak gustura aritu dira oro har; dena dela, talde batetik bestera alde dagoela adierazi dute. Ikastetxean pasatutako balorazio inkestan ikasleek 6,5 puntu eman diote batez beste egonaldiari, eta irakasleek 8,25.

IZENBURUA: GURASOAK ERE ESKOLARA EGITASMOA 2020-2021

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k eta HH eta LHko ikastetxeek lankidetzan 100 orduko euskara ikastaroak eskaini dituzte ikastetxeetan. Eskaintza ikastetxe bakoitzak egin du bere gurasoen perfila kontuan hartuta egokien iruditu zaien moduan. Hauek ere matrikularen %50 ordaindu dute ikastaroa. Astean 4 eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da.



EPEA: 2020ko urritik 2021eko maiatzera

GASTUA: Deskontuen zenbatekoa kanpaina berezien fitxan dago sartuta.

BALORAZIOA:

Kanpaina hau egiten den 5. ikasturtea da eta 20 gurasok eman dute izena eta 2 talde osatu dira: Portalean ematen dira saioak COVIak sortutako egoerarengatik. Ikasturte honetan ere talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako gurasoak egon dira, eta taldea aukeratzeko erabili den irizpidea, eguna, ordutegia, maila izan dira.

Saioak Portalen izatea auzo batzuetako gurasoentzako eragozpena izan da, ikastetxetik urrun gelditzen baitzitzaien.

Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak ere landu dira, baita gurasoentzat oso praktikoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere, esaterako nola lagundu etxeko lanekin.

IZENBURUA: EUSKALTEGIEN LEHIAKETA: TXIO LEHIAKETA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak euskaltegi biek in lankidetzan TXIO lehiaketa antolatu du. Sari bat epaimahaiak emandakoa eta bestea webean boto gehien jaso dituenarentzat izaten da. Lehiaketa irekia izaten da eta edonork har dezake parte.



TXIO LEHIAKETA
Ze txio irakurri nahiko zenuke 2020an
Eibarri buruz ?

PARTE HARTZEKO

Idatz ezazu, asko jota, 140 karaktereko
txio bat traol hau erabilita 
#EibarTxioLehiaketa

Bidali helbide hauetako batera
eibar@aeek.eus euskaltegia@eibar.eus euskara@eibar.eus

Azken eguna: OTSAILAREN 23a

SARIAK: epaimahaiaren saria eta herritarren saria izango dira.
COLISEORAKO ETA ARMAGINTZAREN MUSEORAKO SARRERAK

EPEA: 2020ko otsaila-martxoa

GASTUA: Coliseorako eta Armagintza museorako 4 sarrera.

BALORAZIOA: Lehiaketan hainbat txio jaso ziren, baina COVID arazoengatik bertan behera geratu zen.

IZENBURUA: MULTIKIROLAK 2019 2020

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak ikastetxeekin eta Kirol Patronatoarekin lankidetzan Multikirolak egitasmoa bideratzen du. Euskara zerbitzutik egitasmoa burutzeko kirol monitoreen enpresa baten kontratazioan parte hartzen da, kirol jarduerak euskaraz izan daitezen eta begiraleek euskararen erabileraren neurketa egin eta erabilerara sustatu dezaten umeen artean eta baita partidetan kirol klubetatik datozen epaile eta adituen artean.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 3.993 €

BALORAZIOA: Ikastetxe guztietako umeei hartu dute parte. Umeen % 51 hartzen du parte egitasmoan. 269 benjaminek hartu dute parte, 83 neska. 210 alebinak izan dira eta horietatik 56 neskak.

Eskola kiroleko partidetan klubek ere parte hartzen dute eta euskararen erabileraren neurketa egiten da. Ikusi hemen [TXOSTEN OSOA](#)

IZENBURUA: EIBARTIK ZUBEROARA EUSKALKIETAN BARRENA LIBURUA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udala EHUaren ekimenez Koldo Zuazori gorazarre egiteko liburuaren argitalpenean babesle izan da.



DATAK: 2020ko irailaren 18an

GASTUA: 3.210 €

BALORAZIOA: *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*, Koldo Zuazori gorazarre egiteko EHUko bere lankide eta lagunek Eibarko Udalaren babesarekin egindako artikulu-liburua da.

Liburu horren emate-ekitaldia izan zen Koldori Gasteizko campusean irailaren 18an egin zitzaion omenaldia.


Omenaldian parte hartu zuten hizlari guztiek azpimarratu zuten Koldoren argitasuna, naturaltasuna, lanerako grina eta jendearekin konektatzeko duen erraztasuna.

Bereziki goraipatu zen berak dialektologiaren alorrean egindako lanaren maila. Eta jubilatuta bada ere, lanean jarraitzeko gonbita egin zioten lankide eta lagunek.

Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena liburua Juan San Martín liburutegian dago, interesa dutenek eskuratzeko.

IZENBURUA: EIBARKO EUSKARA .EUS

DESKRIBAPENA: Euskara zerbitzuak KAM enpresaren bidez www.eibarko-euskara.eus web gunea kudeatzen du. Bertan Eibarko euskara hiztegia, argitalpenak eta Eibarko euskararen lotura duten egitasmoak daude jasota.



GASTUA: 759 €

BALORAZIOA: 2019an 39.695 bisita izan ditu eta 17.958 erabiltzaile. Momentu honetan gune hau gehien bat Eibarko Euskara Hiztegia on line mantentzeko da.

IZENBURUA: ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ 1.500 BAIETZ KANPAINA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Errenta aitortpena euskaraz egiteko publizitate kanpaina egin du. Eibarren ez da %10era iristen euskaraz egiten diren errenta aitortpenak. Helburua %10,5era iristea da. Puntu bat eta erdi igo nahi da lehen aldiz egiten den kanpaina honekin.

Kanpaina Eta Kitto astekarian, udalaren web eta sare sozialetan eta hiriko hedabideetan egin da.



EPEA: 2020ko apirila eta maiatza

LANKIDEAK: GFA eta Eta Kitto

GASTUA: 899,04 €

BALORAZIOA:

Aurreikusita zegoen bezala 4 astetan Eta Kitto astekarian jarri da iragarkia: apirilaren 3an eta 17an, maiatzaren 8an eta 29an.

Horretaz gain Eta Kitto astekarian gaiari buruzko erreportaia ere egin da. Iazko kanpainaren ondoren euskaraz aurkeztutako aitortpen kopuruak gora egin du, baina ez zen erronka lortu. 1.402 lagunek egin zuten euskaraz; aurreko ekitaldian baino 122 lagun gehiago. Datorren urtera arte ez dugu jakingo geure buruari jarritako erronka lortu dugun.

IZENBURUA: UEU DIRULAGUNTZA DEIALDIA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak UEUn ikastaroak egiten dituzten eibartarrei eta baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50ari dagokion dirulaguntza ematen diete.

Ikastaro hori indarrean dagoen ikasturtean egindakoa izan behar da.

Dirulaguntza jaso ahal izateko ikastaroa 2019/09/01 eta 2020/07/31 bitartean egindakoa izan behar da.

ESKAERA EGITEKO EPEA : 2020/09/30

GASTUA: 5 €

BALORAZIOA: Eskera bakarra egon da eta baldintza guztiak betetzen zituenez, ontzat eman da.

COVIDak eragina izan du ikastaro eskaintzan eta baita jendearen parte hartzean ere.

IZENBURUA: EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak Eibarren euskararen berreskurapenerako lanean diharduten elkarteekin dirulaguntza izendunak ditu. Dirulaguntza bi zatitan ordaintzen da, %60 hitzarmena sinatzen denean eta %40 zuriketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren.

Eibarko AEK 24.900€

Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak merkatzea.

Eta Kitto Astekaria 60.041€



Eta kitto astekaria argitaratzea. Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea.

Eta Kitto Berbetan 50.908€-

Berbetan egitasmoa burutzea

Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea. Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.

Eta kitto Txikitto 13.500€

Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea



Eta Kitto Tailerrak eta hitzaldiak 5.000€

Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea. Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea. Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.

Badihardugu


1.386€

Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea.

Deba Beheko bertso eskola

3.235€


Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jarduera egitaraua burutzen laguntzea. Eibarko ume eta gaztetxoek artean bertsozaletasuna handitzea.



EPEA : 2020

GASTUA: 158.970 €

BALORAZIOA: Elkartek egindako gastuen zuriak aurkeztu dute eta ontzat eman da.



IZENBURUA: DIRULAGUNTZA ERROTULOAK EUSKARAZ


DESKRIBAPENA: Eibarko Udalak diru-laguntza deialdia kaleratu du Eibarren dauden edo irekiko diren merkataritza establezimenduetako errotuloak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz jartzen laguntzeko.

EPEA: 2020

LANKIDEAK:

Eibar Merkataritza gune Irekia

Eta Kitto Euskara elkarte



ESKAERA EGITEKO EPEA : 2020/11/13

GASTUA: 1.783 €

BALORAZIOA: Guztira 6 eskaera egon dira eta 5ek baldintzak betetzen zituztenez, jaso dute zegokien dirulaguntza. Honela banatu dira dirulaguntzak:

ERROTULU NAGUSIA	424,17 €
FINKOA	1.059,07 €
ELEMNETUAK	300,00 €

AKEBAI

IZENBURUA: AKEKIDEAK

DESKRIBAPENA: AKEBAI Batzarra osatzen duten kideak dira. Akekide izaera edukitzeko fitxa bat bete behar da erregistratuta geratzeko. Fitxa sinatzen duenak adierazten du Euskararen Plan Estrategikoarekin bat egiten duela eta kide izateak dakartzen egitekoak eta betebeharrak onartzen dituela.





EIBARKO HIRIA EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOarekin bat egiten dut, eta AKEBAI Batzarreko kide izateak dakartzan egitekoak eta betebeharrak onartzen ditut.

NORBANAKOA

ORDEZKARIA Ordezkatzen dudana talde/elkarte/erakundea: _____

Kontakturako datuak:

Izen-abizenak:

NAN:

Jaiotze data:

Helbidea:

Telefonoa:

Emaila:

Akekide izateaz gain, parte hartu nahi dut:

EKITALDIAK mahaian	<input type="checkbox"/>	KULTURA mahaian	<input type="checkbox"/>
KIROL mahaian	<input type="checkbox"/>	TRANSMISIO mahaian	<input type="checkbox"/>
KOMUNIKAZIO mahaian	<input type="checkbox"/>	BESTERIK	<input type="checkbox"/>

Data: _____

Sinadura

EPEA: 2020.urtea

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA:

164 Akekide fitxa daude jasota.

IZENBURUA: AKEKIDEEN BATZARRA

DESKRIBAPENA:

AKEBAI Batzarra Akekideek osatzen dute eta plataformaren erabakigune nagusia da. Ekipoak deituko du, gutxienez urtean birritan. AKEBAI Batzarraren egitekoak dira Ekipoak egindako urteroko kudeaketa plana onartzea, eta AKEBAIren jardunaz hausnartu eta proposamenak egitea. Ikusi [araudian](#).



EPEA: 2020

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Urte honetan segurtasunagatik, COVID 19ak sortutako alarma egoeratik, ez da batzarrik egin. Urteko lehen batzarra martxoaren 31an egitea aurreikusten zuen Ekipoak, baina egoera ikusita bertan behera utzi zuen asmoa. Urtean zehar egindakoen berri emateko Akekideei 2020ko memoria eta balantzea bidaliko zaizkie.

IZENBURUA: EKIPOA

DESKRIBAPENA: Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu den *Eibarren* AKEBAI plataformak duen egituraren geruzetako bat da. (BATZARRA eta MAHAIAK dira bestek). Nahiz eta kide batzuk bi urtez behin aldatu (mahaietako kideak eta euskaltegietako ordezkaria) Ekipoaren osaera finkatuta dago. Oro har, urteko kudeaketa planaz eta aurrekontuaz arduratzen da. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, hilean behin batzartuko da, eta gutxienez urtean birritan deituko du Akekideen Batzarra.



EPEA: 2020

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Ekipoa urteko aurrekontua eta plana egiteaz arduratu da, eta adostutako ekintza eta egitasmoak bideratu eta horien jarraipena eta zabalkundea egin du urtean zehar. Ekipoko kideak ekintza-taldetan banatuta aritu dira, AKEBAIko beste kide eta eragile batzuen lankidetzarekin, egitasmoak aurrera eramaten. Urte honetan bizi izan dugun osasun egoerak asko baldintzatu du ekintzen betetze-maila. Aurreikusitako zenbait ekintza bertan behera utzi behar izan dira, martxan jarritako egitasmo batzuk eten edo egokitu... Martxorako aurreikusita zegoen Batzarra ere bertan behera utzi behar izan zen, eta segurtasunagatik edota une egokia ez zelako ez da urtean zehar batzarrik deitu. Akekideei urte honen balantzea bidaliko zaie, hala ere.

Partaideak izan dira:

Udaleko euskara teknikaria, ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizatzailea, Udal Euskaltegiko ordezkaria; Udaleko Euskara Batzordeko zinegotzia, Komunikazio mahaiko kide bat, eta koordinatzailea. 6 kide izan ditu Ekipoak 2020an.

12 bilera egin ditu urtean zehar Ekipoak, gehienak telematikoak:

[2020/01/13](#), [20/02/03](#), [20/02/24](#), [2020/03/16](#) (bertan behera), [20/05/11](#), [20/06/09](#), [20/07/01](#), [20/07/15](#), [20/09/03](#), [20/09/29](#), [20/10/19](#), [20/11/09](#) eta [20/12/02](#)

Bileretan elkartzeaz gain, Ekipoko kideek emailez, Whatsappez eta Driven bitartez egin dute harremana eta lana. Ekintza-talde bakoitzak bere martxa eta funtzionatzeko era izan du, zegokion ekintza bideratu eta burutzeko.

IZENBURUA: TOPALDIA: “Euskaltzaleen antolakuntza ereduez berpentsatzen”

DESKRIBAPENA: Euskaltzaleen Topaguneak urtero antolatzen duen ekitaldia da. Topaldia Jardunaldiak gogoeta eta hausnarketa bultzatu nahi ditu, eta oraingoan, XVII. edizioan, “etorkizuneko” euskaltzaleen antolatzeko modua izango da mintzagai. Eredu ezberdinak erakutsiko dira, eta horien artean Eibarren AKEBAIren esperientzia azalduko da; Udala eta Euskara Elkartearen egitura berean, elkarlanean.



TOPALDIA

Nola antolatuko da etorkizuneko euskaltzaleen mugimendua?

Otsailak 6, Bilbo
Bizkaia Aretoa (EHU)

Izen ematea eta informazioa:
topagunea.eus/topaldia

Aurkezle-moderatzailea: Garikoitz Goleoetxea (Berriako kazetaria eta Galtzaundiko kidea)

9:00 Harrera

9:15 Hasiera ekitaldia

9:30 Euskara Elkarteak: ohiko antolaketa ereduak eta aukera berriak
Dokar Zapata Solano (Euskaltzaleen Topagunea eta Karrikaluzeko Euskaltzaleen Topagunea)

10:00 1. blokea: Elkarlanean eredu partekatutak
Galtzaundiren eskualdetzea eta Tolosaldeko Euskararen Mahaia
Mikel Artola Izagirre (Tolosaldeko Galtzaundi Euskara Elkartearen)

Udala eta Euskara Elkartearen egitura berean. Eibarko Akabairen esperientzia
Idoia Argotia Urkioia (Eibarren Akebai) eta Ainara Lavado Alonso (...eta kittel! euskara elkarte)

Elkarriketa

10:30 Atsedena eta kafea

12:00 2. blokea: Euskaltzaleen komunitateak antolatzeko esperientziak
Lautadako Euskararen Komunitatea. Entitateak erdigunean
Aster Lafuente Ruiz de Sabando (Lautadako Euskararen Komunitatea eta Oibeko Euskara Elkarte)

Perfektuak diren Derioko euskaldun perfektuak komunitateak
Txarra Rodriguez Gomez (Derioko Tximintz Komunitatea)

DET, euskaltzaleak herrietan, auzotan eta hirian
Maddi Juankarrena Diaz (Bagera, Donostia Euskaltzaleen Elkarte)

Elkarriketa

14:00 Bazkaria

15:15 3. blokea: Berrikuntza soziala
Mugimendu sozialaren rola berrikuntza sozialean
Igor Calzada (Bifordetako Unibertsitatea)

Erabiltzaileen kooperatiba integrala. Aiaraldeko esperientzia
Gartzen Garaiok Alxurra (Aiaraldeko Kooperatiba Elkarte)

Elkarriketa

16:30 Esperientzien analisia bi begiradetatik
Andere Ormazabal Gaston eta Zesar Martinez Garcia (Joxemi Zumalabe Fundazioaren kideak eta EHUko irakasleak)
Inigo Iñurriategi (Mandragon Korporazioko hezkuntza kooperatiboko arduraduna eta Loramendi euskara elkarte)

17:30 Itxiera

Antolatzaileak: Euskaltzaleen Topagunea, Bizkaia, Euzko Legebiltzaria, Euzko Foru Batzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria

Babesleak: Euzko Legebiltzaria, Euzko Foru Batzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria

Laguntzaileak: Euzko Legebiltzaria, Euzko Foru Batzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria



DATA: 2020ko otsailaren 6a

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: Bilboko EHUko Bizkaia Aretoa izan zen 2020ko Topaldia, otsailaren 6an. Antolakuntza ereduaren inguruko gogoetak ardatz zuen Topaldia. Jardunaldiak euskaltzale autoeratuaren tokian tokiko antolakuntza ereduak ezagutzeko, eta etorkizunera begira baliozkoak izan daitezkeen ereduaren inguruan elkarrekin pentsatzeko espazioa sortzeko aukera eskaini zuen.

IZENBURUA: EUSKAL ESKAINTZAREN ZABALKUNDEA

DESKRIBAPENA: AKEBAIko Kultura mahaiak hilero euskararen agenda prestatzen du. Agenda horretan Eibarren euskaraz edota euskararen inguruan antolatzen diren ekitaldien berri ematen da, eta horien zabalkundeak egiten da Eibarren AKEBAIren webgunean eta sare sozialetan (Facebook, Telegram)).

Euskararen agendaren zabalkunderako ez ezik, AKEBAIren beste egitasmo batzuen berri emateko ere baliatzen dira webgunea eta sare sozialak. Twiter eta Instagram ere erabili dira, batez ere Euskaraldiaren zabalkunderako.

The image shows a collage of digital content for Eibarren AKEBAI. At the top left is the website header with the AKEBAI logo and navigation links: 'Eibarren Akebai', 'Egitasmoak', 'Euskaraldia 2020', and 'Albisteak'. Below this is a banner for 'EUSKARALDIA' with the tagline 'GEHIAO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN' and the date 'Azaroaren 20tik abenduaren 4ra'. A section titled 'AZKEN ALBISTEAK' (Latest News) features three articles: 'Euskararen eguna Eibarren', 'Eibarren anitzasuna ikasgai', and 'Kike Amonartzelek Eibarren emandako salko itxuragailu'. To the right is a screenshot of a Telegram channel 'Eibarren euskaraz' with 123 subscribers, showing a post about a play 'DOLAN KATUA' and a video link. Below the website is a Facebook profile for 'Eibarren AKEBAI' with 674 followers. The profile bio states: 'Eibarko hiriaren euskararen Plan Estrategikoa da EIBARREN #AKEBAI. Egitasmo ireki eta parte-hartzailea da, 10 urteko epean Eibar euskaldunago bat lortzeko.' A tweet from the profile says 'Eskerrik asko Eibar!'. To the right of the Facebook profile is a list of contact information: website 'http://www.akebai.eus/', phone '+34 943 70 84 44 (4201)', email 'eibarrenakebai@gmail.com', and a community link. At the bottom right is an Instagram profile for 'akebaieibarren' with 713 followers and a bio: 'AKEBAI Eibarko hiriaren euskararen plan estrategikoa! akebai.eus/eibarren-akebai'.

EPEA: 2020. urtea

GASTUA: Barne baliabideak

BALORAZIOA: 3 agenda atera dira guztira; martxokoa, azkena. COVID 19ak sortutako alarma egoeraren ondorioz, aurreikusitako ekitaldiak bertan behera gelditu ziren hasiera batean.

Zabalkunderako honako kanal hauek erabili dira: e-maila (agendaren banaketazerrrenda), webguneak (eibar.eus, akebai.eus), sare sozialak (Facebook, Telegram), whatsapp taldeak

“Eibarren euskaraz” Telegram kanalak 15 kudeatzaile ditu, Eibarko kultura eragileak, eta 123 harpidedun. 96 informazio-mezu zabaldu dira urtean zehar.

akebai.eus webguneak 2.865 bisita izan ditu 1.475 erabiltzailek eginak. 18 albiste argitaratu dira 2020an.

Eibarren Akebai Facebook-ek 629 jarraitzaile ditu eta 585 lagunek atsegin dute. 164 albiste kaleratu/partekatu dira.

Eibarren Akebai Twitterrek 202 jarraitzaile ditu eta **akebaieibarren Instagramek** 418

IZENBURUA: EIBARREN ANIZTASUNA IKASGAI: 101 ELE

DESKRIBAPENA: AKEBAIren babesaz eta laguntzaz eta LHko ikastetxeen lankidetzaz egin da *Badiharduguk* prestatutako ekimen hau. Eibarko ikastetxeetako aniztasuna jaso eta ezagutaraztea da “Aniztasuna ikasgai” proiektuaren helburuetako bat. Horrekin batera, Euskarak integrazio hizkuntza gisa duen balioa ere nabarmenduko da, guraso asko seme-alaben bitartez gerturazten baitira euskarara.

Eibarko LHko zazpi ikastetxeetan egin diren elkarrizketak dira proiektuaren oinarria. Testigantza horiekin bi ikus-entzunezko eta ikas-unitatea prestatu dira, ikastetxeetan erabiltzeko eta jasotakoa herrian ezagutarazteko. Familiak euskarara hurbiltzeko eta euskarak gizarteratzeko duen balioaz jabetzeko ere balioko du egitasmoak.



DATA: 2019-2020

GASTUA: 11.260 € (2019an)

BALORAZIOA: 2019-2020 ikasturtean zehar aukeratutako 10 guraso eta 10 umeei elkarrizketak egin, grabatu eta edizio lanak egin ondoren, bideo-pasarteak sailkatuta jarri ziren ikusgai ekainean: <https://1011.ahotsak.eus/herriak/eibar>
2020ko irailerako bi ikus-entzunezkoak eta ikastetxeetan lantzeko ikas-unitatea prestatuta zeuden aurkezpena egiteko. Baina COVID 19ak sortutako alarma egoeratik atzeratu eta egokitu egin behar izan da egitasmoaren azalpena eta materialaren aurkezpen orokorra eta zabalkundea. Azkenean, azaroaren 17an prentsaurrekoa egin zen udaletxeko Pleno Aretoan, egitasmoan parte hartu eta lagundu dutenen ordezkariak (AKEBAI, Badihardugu, LHko ikastetxeak eta Eibarko Udala) eta prentsa gonbidatuta. Prestatutako bi ikus-entzunezkoak eta gida didaktikoa ikastetxeen eta nahi duten guztien eskura jarri dira "Ahotsak ikasgelan" webgunean: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/eibarren-aniztasuna-ikasgai>. Ikastetxeetan ikusi beharko dute ze egokiera duten unitate didaktikoa lantzeko. Hala ere, material hau geroago ere baliagarria izango da ikastetxeetan erabiltzeko.

IZENBURUA: MUSIKALA

DESKRIBAPENA: Ikuskizun multi-disziplinari bat (dantza, gidoigintza, antzerkia, musika, jantzigintza, kantua, komunikazioa, kudeaketa...) antolatzeko prozesuak dakartzan onura guztiak dituzenez, Eibarko nerabe eta gazteen egituratze sozial eta linguistikorako tresna ezin hobe da musikala.

Eibar BHI-Isasi ikastetxean horrela ikusi dute, eta Hauspoa programaren barruan sartu dute musikala. Horrela, ikasleek euskara modu ludikoan erabiltzen dute, eremu akademikotik at, eta bide batez kohesioa eta talde identitatea indartzen da.

DBHko ikasleek urritik maiatzera bitartean antzerki, kantu eta dantza tailerretan musikala prestatu ondoren, Coliseo antzokian hainbat emanaldi burutzea da helburua. Andrea Covadonga aktore eta kantaria izan da tailer horien gidari.

GEZURRAK

Zer da gezurra?

Gezurra errealitatea osorik edo neurri batean faltsutuz nahita egiten den baieztapen bat da.

G
E
Z
U
R
R
A
K



EIBAR BHI IKASLEEN ESKUTIK
ZUZENDARIA: ANDREA LÓPEZ

Antzezlan honetan, eszenen bitartez, bizitzan esaten diren hainbat gezur aurkituko dituzu. Lagunak, gurasoak, irakasleak, ikasleak, denok murgiltzen gara mundu honen inguruan.

Zuk esan al duzu inoiz gezurrik?

EPEA: 2019-2020 ikasturtea, urria-maiatza bitartean. (Martxoan eten egin da)

GASTUA: 2.250 € (2019an) + 2.250 € (2020an)

BALORAZIOA: 54 ikasle, 45 neska eta 9 mutil, nagusiki DBH1ekoak aritu dira musikala prestatzen, Andrea Covadongaren gidaritzapean (AKEBAIk finantziatuta), ikastetxeko irakasleen eta guraso elkartearen laguntzaz.

“*Gezurrak*” izena eman zioten proiektuari. Izenburua, gidoia, emanaldien datak ... ; guztia zehaztuta zegoen, baina martxoan eten egin behar izan zen egitasmoa, COVID19ak sortutako alarma egoeragatik. Ikasleek ezin izan zuten musikalaren prestaketarekin jarraitu, eta ez zen modurik ikusi Coliseoko emanaldiak udazkenera pasatzeko ere. 2020-2021 ikasturtean, Hauspoan, bakarrik errefortzurako saioak ematea erabaki zuen ikastetxeak.

IZENBURUA: EUSLIDERRAK

DESKRIBAPENA: Eibarren AKEBAIk DBHko ikastetxeekin lankidetzan *EUSLIDERRAK* egitasmoa jarri zuen martxan 2018-2019 ikasturtean, eta 2019-2020 ikasturtean jarraipena egin da. Egitasmo horretan DBH3 eta DBH4ko ikasleek hartu dute parte. Helburua hizkuntza ohituretan eragitea da, jabetzuntza eta ahalduzko-prozesu baten bidez.


Ahize AEK-ko irakasleek gidatu dute proiektua, AKEBAIk finantzatuta.

Hiru fase ditu:

- Moskeo kanpaina
- Saioak / tailerra
- Ekintza soziala

Bi ikasturtetan zehar landu da programa da, 2018-2019 eta 2019-2020, bi ziklotan. I. zikloko parte-hartzaile eusliderrak (boluntarioak) beraiek dira II. zikloko saioak gidatuko dituztenak.

**Ekintza sozial ikaragarri
bat genuen esku artean...**



**Baina koronabirusak
den-dena zapuztu digu.**



EusLider: Gazteentzat euskara atsegin eta dibertigarria egitea helburu

ETA KITTO



Aurtengo ikasturtean Eibarko DBH-ko ikastetxeetan (Eibar BHI, La Salle eta Aldatzel) DBH 3 eta 4ko ikasleek eusLider egitasmoaren bigarren zikloa hartu dute. DBH 4-ko 70 bat ikasle boluntario (eusLider) aritu dira DBH 3-ko ikasleek (290 inguru) saioak ematen. Hauek dira eusLiderrak saioen helburuak: hizkuntzekiko jarrerak landu, eraldaketa sustatu, portaera berriak sortu eta hizkuntza-lidergoia indartu. Azkenean, jabetza eta ahalmentze prozesu batez dihardugu.

EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: Eusliderrak II. zikloa: 6.534 € (2019an)

BALORAZIOA:

II. zikloko hasierako faseak 2019ko urria-azaroa bitartean burutu ziren. Aurreko ziklotik, 2019-2020 ikasturtean DBH 4. mailan aritu diren 70 bat ikasle (3 ikastetxeetakoak) boluntario azaldu ziren prestaketarako 3 saio jasotzeko. Saio bakoitza jaso ondoren, binaka edo hirunaka, DBH 3ko ikasleei (290 ikasle) eurek eman zizkieten hizkuntza ohituretan eragiteko saioak. Ikasleak sensibilizatu, hizkuntzen garrantziaz jabetu eta haien arteko euskararen erabilera informala sustatzeko tailerra egin da.

Aurtengo zikloari amaiera emateko, “ekintza soziala” prestatuta zegoen martxoaren 27rako, baina COVID 19ak sortutako alarma egoeratik bertan behera geratu zen. Horren ordez, eta egitasmoari behar bezalako amaiera emateko, sare sozialetan zabaltzeko bideoak egin dituzte eusliderrek; ekintza sozial birtuala antolatu dute. <https://youtu.be/-UrWFqZ0Kgc>, <https://youtu.be/MIOhrL6AmkU>. Uztailaren 10eko ...eta kitto! [aldizkariaren alean](#) eman zuten horren berri eusliderrek.

Proiektuaren balorazioa positiboa da, nahiz eta aurreikusitakoa ezin izan den burutu COVID 19 gaitza dela eta. Hala ere, ordezko ekintzak antolatu dira, eta eragina izan dute.

IZENBURUA: JIRA BUELTAN TAILERRAK

DESKRIBAPENA: *Badiharduguk* sortutako “Jira bueltan” kanta eta jolasen liburuxka-DVDa oso baliagarria eta egokia dela deritzo AKEBAiko Transmisioa mahaiak LHko ikastetxeetan gunen informaletan, ikasgelatik at, ikasleen arteko euskararen erabilera sustatzeko. Material horren lanketa egiteko eskoletako jangelen jolas orduak aprobetxatuta, Astixa Animazio Zerbitzuko begiraleek 2 saioko tailerrak eman dituzte ikastetxeetan, jangeletako hezitzaile eta HH5 eta LH1 mailetako umeekin (5 eta 6 urte) jolasak lantzeko.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea, 2. Hiruhilekoa; urtarrila-martxoaren bitartean.


GASTUA: 2.035 €

BALORAZIOA: Astixako hezitzaileak ikastetxe guztietatik pasatu dira jolasak eta abestiak irakasteko. Saiok hasi aurretik, jorratu beharreko jolasen azalpenak jantokiko arduradunei banatu zaizkie beraiek aurretik ere landuta izan ditzaten.

Guztira 60 saio egin dira, 45 minutukoak, eta Astixako 4 hezitzaile aritu dira zeregin horretan. 2020ko urtarrilaren 21etik martxoaren 4ra, asteleheneretik ostiralera, 12:00etatik 14:30era bitartean eman dira saioak. Jira Bueltan liburutik 14 jolas aukeratu dira, 5 urte eta 6 urteko umeentzat egokienak. Jantokiko hezitzaileak umeekin batera murgildu dira jolasetan. Umeen harrera, orokorrean ona izan da, eta saioa aurrera joan ahala gusturago aritu dira proposatutako jolasetan. Jantokietako hezitzaileek hurrengo egunetan ikasitako jolasetan arituko zirela adierazi zuten.


IZENBURUA: SUPER AKEAK

DESKRIBAPENA: LH 2. mailan landuko da egitasmoa, Eibarko zazpi ikastetxeetan. Euskarri ezberdinak erabiliz (komikiak, mahai-jokoak, bideoak, antzerkia, ...) euskararen inguruko hainbat portaera jarriko dira agerian, eta umeez egindako lanketa horren bitartez gurasoengan inpaktua sortzea da helburua. Horrez gain, umeez mezu bat jasoko dute: euskarak osoago eta zorientsuago egingo dituela. AKEk, etorkizunetik datorren pertsonaiak, misio bat jarri die; umeez, super heroi bihurtuta (Super Akeak), Eibar hobeago egiten lagunduko diote: garbiagoa, euskaldunagoa,... Bide horretan, balio ezberdinak landuz (euskararen erabilera, genero berdintasuna, aniztasuna, ekologia...) hainbat ekintza burutu behar zituzten urtariletik ekainera bitartean.



AKEKLIK

<p><i>Super Ake (2. aldiz)</i> <i>Super Ake izateko Eibar hobe</i> <i>Super Ake</i></p> <p>Abe balde... liskar gabeko onkoz hobe Abe lahet gustatzen egin dezazet</p> <p><i>Super Ake (2. aldiz)</i> <i>Super Ake izateko Eibar hobe</i> <i>Super Ake</i></p> <p>Abe pora danok berdinez gare eta guztien aurrean Abe lilik! Abe lilik... Euskaraz dabilit Abe lilik egin lilik bihotzetik Abe lilik euskaraz dabilit Abe lilik egin lilik bihotzetik</p>	<p><i>Super Ake (2. aldiz)</i> <i>Super Ake izateko Eibar hobe</i> <i>Super Ake</i></p> <p>Abe balde... Abe lahet... Abe pora... Abe lilik</p> <p>Hizkuntza berean ... hitz egiteak... batuko gaitu... Eibarko biztanleak... Hizkuntza berean hitz egiteak Batuko gaitu Eibarko biztanleak</p> <p>(Baxu-baxu) <i>Super Ake (2. aldiz)</i> <i>Super Ake izateko Eibar hobe</i> <i>Super Ake</i> (Altu) Abe balde Abe lahet Abe pora Abe lilik</p>
---	--



SUPER



AKEAK

DATA: 2019-2020 ikasturtea.

GASTUA: 4.688 € (2019an)

3.599 € (2020an)

Materiala, pertsonaia sortzea, AKERen agerraldiak, erronkak iragartzeko bideoak, abestia sortzea ...

BALORAZIOA: LHko zazpi ikastetxeetan jarri da martxan egitasmoa, 2. mailako ikasle guztiekin. 2019-2020 ikasturteko lehen hiruhilekoan egitasmoa martxan jartzeko prestaketa egin zen (AKE sortu, unitate didaktikoa prestatu, txapa, berba gakoak, komikia, mahai-jokoa...). 2020ko urtarriletik ekainera bitartean burutu behar ziren erronkak honako hauek ziren: AKERen bisitan Super Ake bihurtzeko konpromisoa hartu (txapa) eta AKEberbak eta keinuak ikastea, komikia betetzea jarrerak aztertuta, mahai jokorako taula prestatu eta Akejokoa aritzea, gurasoei euren misioaren berri emateko ekitalditxoak prestatzea (diploma banaketa) Portaleko Areto Nagusian, eta Tantanez tantan egunean herritarrei misioaren berri ematea. Baina martxoan eten egin behar izan zen egitasmoa, COVID 19ak sortutako alarma egoeratik. Ikasleak ikastetxeetara bueltatu ez zirenez, egokitzapen batzuk egin ziren: AKERen bideo egokituak prestatu ziren ikasleei bidaltzeko; Super Akeen abestia sortu zen ikasleei bidali eta koreografia eta letra ikas zezaten; AKEk bukaerako lantxo bat eskatu zien

...

AKERen bisitarekin ikasleak guztiz murgildu ziren egitasmoan, eta ume asko hunkitu ere egin ziren AKE ezagutzean. Oso harrera ona izan zuen, eta ikastetxe guztietako tutoreak oso inplikaturik zeuden proiektuan. Martxora arte dena oso ondo zihoan, ordura arteko alde guztien balorazioa ezin hobea zen. Alarma egoerak ekarri zuen etenaren ondorioz, indarra galdu zuen, eta ezin izan zen burutu nahi zen bezala.

IZENBURUA: HAMAICA BERBALDI

DESKRIBAPENA: “Hamaika berbaldi” egitasmoaren helburuak honako hauek dira: herritarrak aktibatzea, hizkuntza eskubideak ezagutaraztea, euskaldunok ahalduntzea, euskararen aldeko diskurtsoa berritzea...

2020ko udazkenerako (urria-abendua) 2 saio antolatu ziren hizlari berarekin, Kike Amonarrizekin. Lehenengoan “*Berrindartu eta jauzi*” txostenaren aurkezpena egitea zen helburua, eta bigarrean, txostenaren aurkezpena jaso ondoren, Eibarrera etorrita, Kikerekin batera hausnarketa egiteko tartea hartzea.

hamaika BERBALDI




KIKE AMONARRIZ
“Berrindartu eta jauzi”,
euskara biziberritzeko ezinbestekoa

Urriak 27, asteartea, 18:30ean
Portaleko Areto Nagusian

DOAN

Aforogatik, aurretik izena eman behar da:
 eibarrenaakebai@gmail.com / 943 70 84 26
 Leku gabeko gektituz gero, zuzenean ikusteko aukera izango duzue
 AKEBAI-ko Facebook kontuan (@EibarenAkebai)



EPEA: 2020ko udazkena (urria-abendua)

GASTUA: Barne baliabideak
 Hizlaria eta publizitatea: 1.558 €

BALORAZIOA: Saiok urriaren 27an eta azaroaren 18an egin ziren

Urriaren 27ko saioa “*Berrindartu eta jauzi, euskara biziberritzeko ezinbestekoa*”, aurrez aurrekoa izan zen, eta Facebook bitartez ere emititu zen. Portaleko Areto Nagusian egin zen, eta zehaztutako aforoak onartzen zuen beste entzule izan ziren bertan. “Berrindartu eta jauzi” txostenaren aurkezpena egin zuen Kikek, eta bai antolatzaileek eta bai entzuleek balorazio ona egin zuten.

Azaroaren 18ko saioa telematikoa izan zen: “*Berrindartu eta jauzi. Zer egingo dugu Eibarren?*”. Eibarko euskararen plan estrategikoa garatzeko geratzen diren 5 urteetarako lehentasunak eta erronkak zehaztea zen helburua. 16 lagun elkartu ginen saioan, eta eragiteko gaitasuna

eta lehentasuna kontuan hartuta, hurrengo urteetan zein erronkari heldu adostu zen. Egindako lanketaren ondoren, Kike Amonarrizek bere gogoeta azaldu behar zigun, baina arazo teknikoengatik saioa eten egin behar izan zen. Kikereren gogoeta idatziz bidali zitzaizen saioan egon ziren kide guztiei, eta azaroaren 24an jarraipena eman zitzaion saioari, aurrez aurre, udaletxeko patioan.

Saioen balorazioa ona izan da, eta egondakoak gustura atera ziren. Ideiak eta iritziak partekatzeak indarberritzeko eta ilusioa pizteko balio izan zuen.

IZENBURUA: EUSKARALDIA

DESKRIBAPENA: Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak abiatutako ekimenaren 2. edizioa Euskal Herri osoan gauzatu da 2020an: azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean. Herritar euskaltzaleak aktibatuta, **hizkuntza-ohiturak aldatzea** da dinamikaren helburua; euskaltzaleak aktibatu beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten.

Aurreko dinamika bera izan da eredu: **ahobizi** eta **belarriprest**. Baina edizio honetan entitateei konpromiso handiagoa eskatu zaie; **ariguneak** (euskaraz aritzeko guneak) izendatu beharko dituzte

AKEBAI arduratu da Eibarren Euskaraldiaren antolaketa eta kudeaketaz.



Eibarren Euskaraldian

343 arigune

555 belarriprest

1.822 ahobizi

EPEA: 2020

GASTUA: Materiala: 1.518 €

BALORAZIOA: Euskaraldiaren 2. edizioa herrian antolatzeaz arduratu da AKEBAI. Horretarako hainbat lan egin dira: Topaguneak deitutako foroetan parte hartu; antolaketan laguntzeko herri batzordea indartzeko ahalegina egin; “**Etxealditik Euskaraldira**” ekimenaren zabalkundea egin; entitateekin harremanetan jarri eta informazioa zabaldu, izena eman zezaten Euskaraldian parte hartzeko; entitateen izen-ematea eta ariguneetarako material banaketa kudeatu; norbanakoen izen-ematea eta txapa banaketa kudeatu... Urte honetan bizi izan dugun egoerak ez du batere lagundu zeregin hauetan; jendea elkartzeko eragozpenez gain, giroa eta animoa ere ez dira izan egitasmoa aurrera eramateko egokienak. Hala ere, ahal izan den moduan eta egin ahal izan diren egokitzapenak eginda, burutu da Euskaraldia bai Euskal Herri mailan, eta bai Eibar mailan.

Etxealditik Euskaraldira: 3 astez zabaldu zen ekimena; apirilaren 13tik maiatzaren 3ra bitartean. Lehengo astean prestaketa lanak eta beroketa egin ziren, eta bigarren eta hirugarrenean hizkuntza ohiturak aldatzeko proposamenen pilulak zabaldu ziren sare sozialetan. 10 bideo zabaldu ziren guztira: Aurkezpen bideoa, Etxeko hizkuntza ohiturak aztertzeko ariketa, Jolastu euskaraz, Online poteoa, Bazkari etxekoia (denok batera), Esker mezuak, Erosketak, Zinema etxean, Bizipenak partekatzeko deia, Bizipenak-adibideak. Ekimen honen helburua zen etxealdian geundela aprobetxatuta, gure hizkuntza ohituren inguruan hausnartzea eta ohitura horiek aldatzeko ahalegina egitea emandako aholkuak jarraituta.

Entitateei (enpresa, elkarte, denda, taberna, ikastetxe...) gutuna bidali zitzaien egitasmoaren berri emateko, interesatuak AKEBAIrekin harremanetan jartzeko gonbidapena eginez. Izen-ematea irailaren 27ra arte luzatu zen, eta Eibarren 83 entitatek eman zuten izena eta 343 arigune osatu zituzten.

Norbanakoen izen-ematea irailaren 24tik azaroaren 24ra arte luzatu zen. Izen-ematea online egitea hobetsi zen, baina mahaiak ere jarri ziren asteburuetan Eibarko hiru gunetan (Urkizu, Untzaga eta Amaña/Legarre), izena emateko eta txapa jasotzeko. Eibarren Euskaraldian parte hartzeko 555 lagunek eman zuten izena belarriprest rola hartzeko eta 1.822 lagunek aukeratu zuten ahobizi rola.

IZENBURUA: TANTANEZ TANTAN

DESKRIBAPENA: TANTANEZ TANTAN bi urtetik behin Eibarko Euskgintzak antolatzen duen giza katea da. Urez betetako gantxila eskuz esku eramaten da Untzagaraino, euskararen irudikatuz.



DATA: 2020ko maiatza

BALORAZIOA: Bizi dugun egoerak hala behartuta, gantxilaren eguna ezin izan zen kalean ospatu, eibartarron artean. Euskgintzak eta AKEBAIk elkarlanean egiteko aurreikusita zeukatena (Super Akeen aurkezpena) ezin izan da egin. Hala ere, Eibarren euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko modua bilatu zuen euskgintzak.

Deialdia egin zuten Eibarko euskalgintza osatzen duten taldeek, euskarari indarra eta hauspoa emateko herritarrek euren bideoak bidal zituzaten, eta erantzuna bikaina izan zen. Bideo polita egin zuten jasotako guztiak batuta: <https://youtu.be/jUO1Qv2toRQ>

Udal Euskaltegia

IZENBURUA: EUSKALTEGIKO PLANTILA

DESKRIBAPENA: Euskaltegiko plantila 11 lagunez osatuta dago, 10 irakasle-normalizatzaile eta administrari bat. 2019/2020 ikasturtean, 3 irakasle-normalizatzaile jardun osoan klaseak ematen aritu dira, idazkari akademikoak lan jardunaren erdia karguari dagozkion bestelako lanekin bete du eta zuzendaria karguari dagozkion lanak gehi jardun erdia irakasle lanetan aritu da. Beste bi irakasle kontratatu behar izan ditugu demandari aurre egiteko: bata jardun erdirako, 100 orduko xede bereziko hiru taldeetan aritzeko; eta bestea jardun osorako, irakasle bat ikasturte osoan (ekainaren erdialdera arte) bajaran izan dugu eta.

Irakasle bat normalizatzaile lanetan aritu da Euskara zerbitzuan, beste batek Euskararen Plan Estrategikoaren dinamizatzaile lanetan jardun du, hirugarren bat Pertsonal sailean zerbitzu eginkizunetan, eta laugarrena itzultzaile lanak egiten udalean.

Zuzendaria	Euskaltegian
Idazkari Akademikoa	Euskaltegian
4 Irakasle-normalizatzaile	Euskaltegian
4 Irakasle-normalizatzaile	Beste lan batzuetan
Irakasle bi aldi baterako kontratatuta, ikasturte osorako.	Euskaltegian
Administraria	Euskaltegian



EPEA: 2019 - 2020 ikasturtea

GASTUA:

BALORAZIOA:

Aurten, daukagun plantilarekin ez da nahikoa izan eman beharreko eskola ordu guztiak eman ahal izateko, beraz, bi langile kontratatu behar izan dira: lehenengoa (jardun osoz), bajaran egon den irakaslearen ordez, eta bigarrena (jardun erdirako), xede berezietako taldeetan klaseak emateko.

IZENBURUA: EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA

DESKRIBAPENA: Eibarko Udal Euskaltegiak eskaintzen duen zerbitzua **16 urtetik gorakoei** zuzenduta dago. Europar Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezarritako **maila guztiak** eskaintzen ditu, hau da, A1etik hasita C2ra arte, **goizez eta arratsalde/iluntzeko ordutegietan.**

Neguko ikastaroan, Klaseak aurrez aurre eta autoikaskuntzan izan daitezke. Aurrez aurrekoen artean modulu ezberdinak aukeratu daitezke: Astean 10 ordu asteleheneetik ostegunera, astean bitan 2,5 orduko saioetan (C1 mailan), astean 8 ordu (C2 mailan), ikastaro trinkoak, 100 edo 60 orduko ikastaroak (xede berezikoak badira)...

Autoikaskuntza tutoretza eta mintza-saioekin eskaintzen da.

Uda Ikastaroan, 100 orduko **aurrez aurreko** klaseak izaten dira bakarrik.

Ikastaro berezien artean, hauexek eskaintzen dira: Etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA), Mintza-praktika ikastaroak, jubilatuei, gurasoei... zuzendutako ikastaroak, enpresetakoak, IRALEkoak...

Azterketa prestakuntza eta HABEko **azterketa deialdietara aurkezteko aukera** ere eskaintzen da.

2019-2020 ikasturtean, A1, A2 eta B1 **mailak egiaztatu** ahal izan dira Euskaltegian ebaluazio jarraituaren bitartez.

Euskaltegiak **Liburutegi zerbitzua** (mailari egokitutako liburuak maileguan) eta **Ordenagailu gela** (euskara ikasteko Internetek eskaintzen dituen baliabideak) ere erabiltzeko aukera ematen die ikasleei.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

BALORAZIOA: Maila guztiak eman dira. Aipatzekoa da C2 maila lantzeko taldeak osatzea oso zaila dela, eta azken urteotan, urtero lortu dela maila horretako talde bat izatea.

Ikasle gehienek aurrez aurreko eskolak aukeratu badituzte ere, autoikaskuntzan 33 ikasle izan ditugu, iaz baino 3 gehiago.

Ikastaro eta talde berezien artean, hauexek izan ditugu: *Gurasoak ere eskolara* kanpainatik sortutakoak (talde bakarra, iaz bi), Jubilatuen talde bi (iaz bat), eta beste bat Armeria eskolan (berria), 60 ordukoa, euren eskola orduetan txertatuta.

IZENBURUA: MATRIKULA EPEAK ETA EGUTEGIA

DESKRIBAPENA: Ikasturtea bi alditan banatzen da, negu ikastaroa (urria-ekaina) eta uda ikastaroa (ekaina-uztaila). Negu ikastaroaren matrikulaldi nagusia irailean izaten da, baina urtarrilean berriz zabaltzen da, eskaerari erantzuteko eta taldeak osatzeko. Uda ikastaroaren matrikulaldia, ostera, ekainean izaten da. Negu ikastaroa urriaren lehenengo lanegunean hasten da eta San Juan jaien aurreko azken lanegunean amaitzen. Uda ikastaroa San Juan jaiak igaro eta lehenengo lanegunean hasten da eta 20 laneguneko iraupena du.

2019/2020

IRAILA							URRIA							AZAROA							ABENDUA													
as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig							
						1			1	2	3	4	5	6							1	2	3							1				
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8							
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15							
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22							
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31	25	26	27	28	29	30	23	24	25	26	27	28	29											
30																									30	31								
URTARRILA							OTSAILA							MARTXOA							APIRILA													
as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig							
		1	2	3	4	5							1	2												1			1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12							
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19							
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26							
27	28	29	30	31	24	25	26	27	28	29	23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30													
														30	31																			
MAIATZA							EKAINA							UZTAILA							ABUZTUA													
as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig	as	at	az	os	ot	la	ig							
						1	2	3	1	2	3	4	5	6	7							1	2	3	4	5							1	2
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9							
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16							
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23							
25	26	27	28	29	30	31	29	30	27	28	29	30	31	24	25	26	27	28	29	30	31													

Matrikula epea

Negu ikastaroa

Uda ikastaroa

EPEA: 2019-2020 ikasturtea

BALORAZIOA: HABEk ezartzen dituen epeak errespetatu dira eta egutegia bete da. Hala ere, epez kanpo etorri den pertsonari dagoen eskaintza azaldu zaio eta matrikulatzeko aukera izan du.

IZENBURUA: TASAK ETA TARIFA BEREZIAK

DESKRIBAPENA: Eibarko Udal Euskaltegiak euskara ikasteko ezarrita dauzkan prezioak ordaintzeko orduan erraztasunak emate aldera, tarifa bereziak jarri ditu zenbait kolektiborentzat. Ezinbestekoa da Eibarren errolatuta egotea tarifa berezi hauetaz baliatzeko. Ikusi [ORDENANTZA FISKALAK](#) (Udalaren web orrian ikusgai)



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 23.185,20 €

BALORAZIOA: Ikasturte honetan 144 ikasle izan dute tarifa bereziren bat (% 81,8)

- Aurreko ikasturteko asistentziagatik 7 ikasle (% 4)
- DBE-RGI izateagatik: 8(% 4,5)
- Guraso izateagatik: 33 (% 18,8)
- Dendari, ostalari edo zerbitzuen sektorekoa izateagatik: 14 (% 8)
- Enplegatua izateagatik: 0 (% 0,0)
- 65 urte edo gehiago izateagatik: 17 (% 9,7)
- Langabetua izateagatik: 25 (% 14,2)
- Ikasle izateagatik: 40 (% 22,7)

IZENBURUA: TALDEAK, ORDUAK ETA IKASLE KOPURUA

DESKRIBAPENA: 2019/2020 ikasturtean 215 ikasle ibili dira Euskaltegian 16 taldetan banatuta, guztira 33.444 ordu eman dira Neguko eta Uda Ikastaroaren artean.

2019/2020		Talde kopurua	Emandako ordu kopurua	Ikasle kopurua
Negu Ikastaroa	Aurrez aurre	14	30.844	156
	Autoikaskuntzan	-	-	33
Uda Ikastaroa	Aurrez aurre	2	2.600	26

Maila guztiak eman dira:

A1	A2	B1	B2	C1	C2
OINARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	
Hasierako erabiltzailea	Oinarrizko erabiltzailea	Erabiltzaile independentea	Erabiltzaile aurreratua	Erabiltzaile gaitua	Erabiltzaile aditua
- Talde 1 342 ordukoa	- Talde 2 342 ordukoak	- Talde 1 342 ordukoa	- 3 talde 342 ordukoak	- 2 talde 342 ordukoak	- Talde 1 280 ordukoa
- Talde 1 100 ordukoak (gurasoak)	- talde 1 100 ordukoa (jubilatua)	11 ikasle	34 ikasle	- Talde 2 100 ordukoa (Uda Ikast.)	9 ikasle
- Talde 1 100 ordukoak (jubilatua)	28 ikasle			52 ikasle	
- Talde 1 60 ordukoak (Armeria eskola)					
48 ikasle					
Autoikaskun. 6 ikasle	Autoikaskun. 3 ikasle	Autoikaskun. 2 ikasle	Autoikaskun. 10 ikasle	Autoikaskun. 12 ikasle	Autoikaskun.

EPEA: 2019-2020 ikasturtea

BALORAZIOA: 2019-2020 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 24 ikasle gehiago izan ditugu. Orduei dagokieraz, 1.192 ordu gehiago eman dira. 16 talde izan ditugu aurten, iaz bezala. Aurten ez da egon C1eko astean 5 orduko talderik, ezta ere, AISA eta IRALEko talderik. *Gurasoak ere eskolara* kanpainatik 100 orduko talde 1 izan dugu, iaz baino bat gutxiago. Taldeetan ratioa altuagoa izan da.

IZENBURUA: IKASLEAREN PROFILA**DESKRIBAPENA:** 2019/2020 ikasturteko ikaslearen profila ondorengoa da:

Sexua:	
Emakumezkoak	146 (% 67,9)
Gizonezkoak	69 (% 32,1)
Ikasketa maila:	
Unibertsitate-gradua	80 (% 37,2)
UBI-LHII	67 (% 31,2)
Eskola graduatua	47 (% 21,9)
Beste	21 (% 9,7)

Lan egoera:	
Lanean edo ikasten:	159 (% 74)
Langabezian:	56 (% 26)
Adina:	
16 - 25	59 (% 27,5)
26 - 30	21 (% 9,8)
31 - 35	14 (% 6,5)
36 - 45	45 (% 20,9)
46 - 50	28 (% 13)
>50	48 (% 22,3)

**EPEA:** 2019-2020 ikasturtea

BALORAZIOA: Betiko joerari jarraituta, ikasleen profilari begira, ikasleen % 67 emakumezkoak izan dira eta % 33 gizonak. Titulazioari erreparatuta, gehienek goi eta erdi mailako titulazioa dute, eta batez besteko adina 36-45 urtekoa da. Langabetuak 56 izan dira, % 26, aurrekoan baino zertxobait baxuagoa, iaz % 28,3koa izan zen. Etorकिनak 30 izan dira, % 14koa osatzen dute, iaz %11,5koa osatzen zuten.

IZENBURUA: HABEren AZTERTZAILEAK

DESKRIBAPENA: Urtero HABEk maila egiaztatzeko 2 deialdi egiten ditu, bata maiatza-ekaina aldera (deialdi itxia) eta bestea urria-azaroa aldera (deialdi itxia zein irekia) eta azterketa hauek zaintzeko eta zuzentzeko irakasleak behar izaten ditu. Eibarko Udal Euskaltegiak maila guztietan ditu aztertzaileak, honela banatuta: B1 mailan, Jon Sasiain; B2 mailan, Xabier Gezuraga; C1 mailan, Itziar Garitagoitia eta Arantza Iriondo eta C2 mailan, Nerea Beitia. A1 eta A2 mailetan ere, nahiz eta ebaluazio jarraitua egin, Sorkunde Juaristi da horko aztertzailea. Azterketa deialdi bakoitzaren aurretik Bateratze Saioak antolatzen ditu HABEk eta horietan parte hartzen dute maila guztietako aztertzaileek azterketak zuzentzeko orduan irizpide bateratuak izateko.

Ikasturte honetan, COVIT-19a dela eta, B2, C1 eta C2 mailetarako 1. deialdia ekainu-uztailean izan da eta ikasleek ahozko proba euskaltegian bertan egin dute.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: Bateratze saioetara joateko egiten diren Km-ak.

BALORAZIOA: Komenigarri irizten diogu maila guztietan aztertzaileak izateari; alde batetik, gure ikasleei irizpideak eta aholkuak emateko eta bestetik, profesionalak garen aldetik, gure lanean etengabe eguneratuak egoteko. HABEren bateratze saioen ondoren, saiatzen gara gure artean, eta denon parte hartzearekin, antzeko saioak egiten, Eibarko Udal Euskaltegiko irakasleok maila guztien ikuspegi orokorra izan dezagun.

IZENBURUA: FORMAZIOA

DESKRIBAPENA: Udal Euskaltegiko langileek etengabeko formazioa jasotzen dute, besteak beste, euren lana eguneratzeko eta eskabide berriei erantzuteko. Formakuntza hori, gehienetan, didaktika arloan zein administrazio arloan izaten da, beti ere, kontutan hartuta unean uneko beharrak, eskaintzak eta eskabideak zein diren.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 5.533,50 € + Udalak langile guztientzat antolatzen dituenak.

IKASTAROEN ZERRENDA:

IKASTAROA	ANTOLATZAILEA	TUTOREA	PARTE-HARTZAILEA
HEOCaren B1 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailagaien bateratze-saioak	HABE	Julio Aparicio	Jon Sasiain
HEOCaren B2 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailagaien bateratze-saioak	HABE	Maddi Zubiaurre	Xabier Gezuraga
HEOCaren C1 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailagaien bateratze-saioak	HABE	Pedro Lacunza Eider Carton	Itziar Garitagotia Arantza Iriondo
HEOCaren C2 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailagaien bateratze-saioak	HABE	Alex Mungia Alex Cabello	Nerea Beitia
Idazkuntzaren hasi-masiak: Kohesioa	Euskaltegia	Julia Marin	Euskaltegiko irakasle guztiak
Ahoskera: Testu interpretazioa	Euskaltegia	Julia Marin	Euskaltegiko irakasle guztiak
Suteak hitzaltzen	Eibarko Udala		Arantzazu Barrutia / Sorkunde Juaristi
EXCELL ikastaroa	Eibarko Udala	Institut de Formació i Ocupació de Calvia: on line	Sorkunde Juaristi / Guren Zumalde / Arantza Iriondo
Denboraren kudeaketa: Triskelion	Eibarko Udala	Gamelearn taldea: on line	Sorkunde Juaristi / Jon Kurutz Sasian / Arantza Iriondo / Xabier Gezuraga
Bulegoetan segurtasuna eta osasuna	Eibarko Udala	Naia Gandiaga Perez de Albeniz (Quirón Prevención) on line	Sorkunde Juaristi / Arantzazu Barrutia
MOODLE hasieratik	UEU	Tutorerik ez / Zalantzak plataforman	Arantza Iriondo / Itziar Garitagotia

IZENBURUA: KANPO EKINTZAK

DESKRIBAPENA: Ikasturtean zehar euskaltegiko jarduna osatzeko asmoz eta ikasleak euskaltegiko esparrutik kanpo euskara entzun eta erabiltzeko helburuarekin egiten diren ekintzak dira. Batzuk euskaltegiak berak antolatzen ditu, beste batzuk Euskara Sailak edo Kultura Sailak eskaintzen dituzte eta beste hainbat Eibarko talde eragile batzuek programatzen dituzte. Eskaintza aztertu egiten da eta ikastaldearen euskara maila kontuan hartzen da proposamena taldeetan zabaldu baino lehen, baldin eta ekintza hori eskola orduetan egiten bada. Bestelako ekintzen berri zabaltzen da eta ikasleak animatzen ditugu parte hartzera. Uda ikastaroan ez da kanpo ekintzarik antolatzen.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

2019ko URRIA	<ul style="list-style-type: none"> Ikasturte hasierako aurkezpen ekitaldia, Beatriz Egizabalen bakarrizketa ilustratua eta luntxa "GHERO, azken euskalduna" antzezlan HUNTZA taldekoekin hitzaldi eta kantaldia
2019ko AZAROA	<ul style="list-style-type: none"> Gaztaiferre (argazki lehiaketa, pastak) SOKA erakusketa BERBETAN programaren aurkezpena "Nomofobikak" antzezlan Film Laburren Jaialdia: Planocorto - ANIMADEBA
2019ko ABENDUA	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen eguna: "Armiarma sarea" "Lau teilatu" abestia grabatu EITB maratoirako Gabonetako otarra
2020ko URTARRILA	<ul style="list-style-type: none"> Leire Zinkunegi ipuin kontalaria San Blas Opilak egin.
2020ko OTSAILA	<ul style="list-style-type: none"> TXIO lehiaketa Hitzaldia Portaleko Areto Nagusian "Ikasgaia" Antzezlan
2020ko MARTXOA	<ul style="list-style-type: none"> Antzerki jardunaldiak: "Ni, munduko txarrena" "Bakean dagoena bakean utzi" emanaldia
2020ko APIRILA - EKAINA	<ul style="list-style-type: none"> CONFINAMIENTO y fin de las clases presenciales Tantanez tanan
2020ko UZTAILA	<ul style="list-style-type: none"> "...eta Kitto" Euskara elkartera bisita

GASTUA: 2.106,45 €

BALORAZIOA: Orokorrean ona izan da. Baina beti kontuan hartu behar da, ekintza batzuetan ikasleak berak hala nahi duelako parte hartu duela eta beste batzuetan irakasleak edo taldeak bultzatuta; azken hauetan normala da denon satisfazio maila berdina ez izatea.

IZENBURUA: LIBURUTEGI ZERBITZUA

DESKRIBAPENA: Euskaltegiak ikasleen eskura jartzen du liburuen mailegu zerbitzua. Euskaltegian matrikulatuta dagoen ikasle orok du zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Ikasleak liburua aukeratzen du, batzuetan irakasleak gomendatuta eta beste batzuetan bere gustuz, eta dagokion fitxa bete ondoren etxera eraman dezake. Liburua bueltatzeko epea 2 hilabetekoa da. Eskaintzen diren liburu gehienak eleberriak dira; izan ere, hauek dira errazen irakurtzen dituztenak. Urtero liburu berriak erosten dira, argitaletxeen nobedadeak ikusi eta gero edota irakasle edo ikasleren batek gomendatuta.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 594,82 €

BALORAZIOA: Ikasleek eskertzen dute zerbitzu hau; izan ere, Udal Liburutegiak liburuak irakurtzeko eskaintzen dien epea motza da ikasle askorentzat. Eta gainera liburu askok, liburu barruan, ikasleen iritzia dute idatzita. Ikasturte honetan 33 liburu erosi dira. Nahiz eta martxoan eten egin ziren aurrez aurreko klaseak, eta horren ondorioz, ikasleak ez ziren Euskaltegira etortzen, 145 aldiz erabili da mailegu zerbitzu hau. Aurten, baja eman zaie aurreko urteetan mailegutzan eman diren liburuei baina ikasleek itzuli ez dutenei. Guztira 61 baja izan dira.

IZENBURUA: EGIAZTATZEGINTZA

DESKRIBAPENA: A1, A2 eta B1 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatzen dira. Horretarako, ikasleek euskaltegian maila emateaz gain, beste baldintza batzuk ere bete behar dituzte (gutxieneko asistentzia, laginak jasotzea...). B2, C1 eta C2 mailetan, berriz, maila egiaztatzeko ikasleak azterketa ofizialetara aurkeztu behar izaten dira. Euskaltegietako ikasleek, baldintza batzuk betez gero, HABEren deialdi itxietara aurkezteko aukera izaten dute, baina badaude beste aukera batzuk maila egiaztatzeko, besteak beste, HABEren deialdi librea, Hizkuntza Eskolako azterketak, IVAPekoak...

		HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOA		HADE		ELUSKO JARRIARITZA GOBIERNO VASCO		187/2017 Dekretua EHAA 138 zk. - 2017ko uztaileak 20	297/2010 Dekretua EHAA 219 zk. - 2010eko azaroak 15
		B 1	B 2	C 1	C 2				
Eusko Jauriaritza	HABE	B1 maila - 1. maila	B2 maila - 2. maila	C1 maila - 3. maila	C2 maila - 4. maila				
	HAEE - IVAP	1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza-eskakizuna	4. hizkuntza-eskakizuna				
	Osakidetza	1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza-eskakizuna	4. hizkuntza-eskakizuna				
	Ertzaintza		1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna		(1)			
	Hezkuntza Saila		Irakaspostuen 1. HE	Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) Irakaspostuen 2. HE					
Nafarroako Gobernua Hezkuntza Saila				Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)					
Iparralde Euskararen Erakunde Publikoa				Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)					
Euskaltzaindia				D agiria	B agiria				
Eusko Jauritza	Hezkuntza Saila		HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria)						
	Hizkuntza Eskola Ofizialak	3. maila (Aitzineko ikasketen plana) Tarteko Maila	4. maila (Aitzineko ikasketen plana) Maila Aurreratua	5. maila edo euskal gaitasun maila (Aitzineko ikasketen plana) Gaitasun Maila (C1)		(2)			
	Hizkuntza Eskola Ofizialak								

(1) Alde biko baliokidetzak (2) Norabide bakarreko baliokidetzak

EPEA: 2019-2020 ikasturtea

BALORAZIOA: 2019ko 2. deialdian 27 ikasle aurkeztu dira HABEko azterketaren batera, eta 14k lortu dute agiria eskuratzea (% 52k). 2020ko 1. deialdian, berriz, 54 ikasle aurkeztu dira, eta 34k lortu dute agiriren bat (% 63k).

laz bezala, A1, A2 eta B1 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatu dira. Horretarako ezinbestekoa izan da maila gaintzeaz gain, % 75eko asistentzia izatea eta ebaluazio laginak (diagnosia, tarteko jarduerak eta ikastaro bukaerakoa) jasota izatea. Baldintza horiek beteta, A1 maila 6 ikaslek lortu dute (% 28k), A2 maila 6k (%33k) eta B1 maila 8k (% 50ek).

IZENBURUA: ARMERIA ESKOLA

DESKRIBAPENA: 'Laneko komunikazioa euskaraz' zeharkako ikastaroa klase orduan txertatzeko proposamena egin zuen Armeria Eskolako Hizkuntza Normalkuntza Batzordeak eta 2019-2020 ikasturtean, Telekomunikazio eta Sistemak zikloan proiektu pilotua abian jarri zen. 2020-2021 ikasturtean jarraipena izan du eta Mantentze-lan elektronikoa zikloan ere ezarri da.

Eibarko Udal Euskaltegiak euskaraz dakiten ikasleen eskolen ardura hartu du.



ArmeriaEskola^x

Urriaren 14tik otsailaren 10era bitartean 60 orduko ikastaroa jaso dute ikasleek. Saiok asteazken eta ostegunetan izan dira, 12:30etik 14:30era; asteazkenetan Mantentze-lan elektronikoa zikloko ikasleek jaso dituzte eskolak eta ostegunetan Telekomunikazio eta Sistemak ziklokoek. Erronken edo proiektu teknikoan ahozko aurkezpenak lantzeaz gain, ikasten ari diren alorreko testu, bideo eta hiztegia landu dira.

BALORAZIOA: Ikasleek orokorrean ondo baloratu dute ikastaroa.

IZENBURUA: EUSKALTEGIAREN 35. URTEURRENA

DESKRIBAPENA: 2019-2020 ikasturtean Eibarko Udal Euskaltegiaren 35. urteurrena izan da. Hori ospatzeko, hainbat ekintza antolatu dira, batzuk matrikulazio kanpaina barruan (bideoalbistea, prentsaurrekoa, ikasturte hasierako ekitaldia), beste batzuk ikasleei begira, ikasturtean zehar (Animadeba/Filmazpit, Huntza taldearen hitzaldi/kantaldia, Ipuin kontaketa, antzezlanana...).



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA: 2.106,45€

BALORAZIOA:

Ettxeratze-aginduaren ondorioz, martxoan bertan behera gelditu ziren ospakizunak. Zaila da esaten kanpaina honen eraginez izan den, edo zer puntutaraino izan den kanpainaren eraginez, baina matrikulazioak azken urteotan jasan duen beherazko joera eten egin da eta ikasturteko datuen arabera, aurtengoan, bai ikasle kopuruan eta bai eskola orduetan % 17,85eko igoera egon da 2018/2019 ikasturteko datuekin alderatuz. Antolatutako ekitaldietan, batzuetan, 40 bat lagun hartu dute parte, eta oso balorazio onak jaso dira. 8,6 (0-10)


IZENBURUA: COVID19AREN ERAGINA EUSKALTEGIAN

DESKRIBAPENA: Covid19ak eragin handia izan du Euskaltegiko jardunean. Martxoko etxeratze-aginduaren ondorioz, aurrez aurreko klaseak eten egin dira, hala ere, zailtasunak zailtasun, ikasturteak aurrera jarraitu du. Teknologia erabilia, irakasleek etxetik eman dituzte klaseak eta ikasle gehienek arazorik gabe jarraitu ahal izan dute ikasturtea.

Ekainaren azkenetan, behin etxeratze-agindua erretiratu eta gero, osasun neurriak hartuta, aurrez aurre, eta normaltasunez eman ahal izan da uda ikastaroa.

Osasun neurria hauek hartu dira, besteak beste: gelen aforoa murriztu egin da; gelak egokitu egin dira segurtasun distantzia mantendu ahal izateko; seinaleak eta markak jarri dira norabideak eta distantziak markatzeko; eta gel hidroalkoholikoa eta desinfektantea jarri dira hainbat lekutan ikasleen eskura...

Euskaltegiaren 35. urteurreneko ospakizunetan ere eragina izan du, bertan behera gelditu behar izan baitira martxotik aurrerako ekitaldiak.



EPEA: 2019-2020 ikasturtea

GASTUA:

BALORAZIOA: Euskaltegia ederto egokitu da egoera berrira eta ikasturtea hasiera batean espero baino hobeto bukatu ahal izan da. Ikasle banaka batzuk besterik ez ziren gelditu ikastaroa jarraitu ezinik.

Datorren ikasturteari begira, erronka moduan planteatu da eguneroko klaseak on-line plataforma batera igotzea, antzerako egoerak sahiesteko.

Mailen egiaztatze prozesuak ere aurrera jarraitu du, eta gure ikasleek arazorik gabe egiaztatuta ahal izan dute zegokien maila.

Aipatzekoa da irakasleek egin behar izan duten lana dena berrantolatzen zailtasunak ekiditeko.

Uda ikastaroa normaltasunez eman da eta bi talde osatu dira.

Penagarria izan da 35. urteurreneko ospakizunak eten behar izatea.